

Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2004ko azaroaren 12a / 694. zenbakia



MONTERRON BERRESKURATU GURAN

**36 zuhaitz gaixo bota dituzte,
eta berriak landatzeko asmoa dute**

ORAIN ETA HEMEN: TRATU TXARREN AURKAKO PLATAFORMA/6 • KULTURA: 'EL DECAMERON' ANTZEZLANA/12

ARGAZKIA: XABIER URZELAI

EDERTASUN GIDA/20

GUARDIAKOFARMAZIAK

- EGUBAKOITZA, 12**
Español. Araba etorb. 14 943 79 18 65
- ZAPATUA, 13**
Ruiz. Maala 31 943 79 14 09
- DOMEKA, 14**
Zabala. Zarugalde 42 943 77 16 30
- ASTELEHENA, 15**
Azkoaga. Ferrerías 1 943 79 15 15
- MARTITZENA, 16**
Azkoaga. Iturriotz 17 943 79 79 99
- EGUAZTENA, 17**
Corcuera. M. Aranbarri 1 943 79 22 26
- EGUENA, 18**
Irizar. Erguin 11 943 79 12 39
- EGUBAKOITZA, 19**
Amezua. Santa Mariña 32 943 79 09 74

TELEFONOJAKINGARRIAK

- ERIETXEAK**
Arrasateko Eskualde Ospitalea. 943 03 53 00
Igualetoia. 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea:
Gizonak. 943 79 39 00
Emakumeak. 943 79 44 11
Buru osasunerako etxea. 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**
SOS Deiak. 112
Gurutze Gorria. 943 76 55 76
DYA. 943 78 71 57
- ANBULATORIOAK**
Guardiako medikua. 943 46 11 11
Astelohenetik
egubakoitzera. 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan. 14:00etatik 08:30era
Asteburuetan eta jaiegunetan. egun osoa
- Arrasate**
Astelohenetik
egubakoitzera. 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan. 09:00etatik 14:00etara
- Txanda hartzeko:
medikuntza orok. eta pediatría 943 03 52 50
 - Espezialitateak. 943 03 53 11
 - Ikuskatzailea. 943 03 52 52
 - Kanpoko kontsultak. 943 03 53 11
- ANBULANTZIAK**
Gipuzkoako Anbulantziak. 943 45 87 44
- ERTZAINZA**
Arrasate. 943 79 71 99
- SUHILTZAILEAK**
Udal taldea. 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaileburua. 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde Parkea. 088
- MATXURAK**
Urak (Udal Zerbitzua). 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero). 943 12 01 62
Gasa. 900 40 05 23
..... 943 79 78 44
- GARRAIOAK**
Taxiak. 943 79 12 22
PESA. 902 10 12 10
- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**
Iturbide egoitza. 943 79 72 11
Abaroa erretiratuen egoitza. 943 79 81 57
- MONTEIRON LIBURUTEGIA**
Monterron. 943 77 01 05

MEZAK

San Juan parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna)	San Andres eliza Zapatua 19:00 (elebiduna)
Domeka 09:00 (elebiduna) 11:00 meza nagusia (euskaraz) 12:30 (elebiduna)	Domeka 10:00 (gaztelaniaz) 11:00 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)
San Frantzisko eliza Zapatua 19:00 (elebiduna)	Santa Marinako eliza Zapatua 19:00 (gaztelaniaz)
Domeka 09:00 (euskaraz) 10:00 (elebiduna) 12:30 meza nagusia (elebiduna) 19:00 (elebiduna)	Domeka 11:00 (gaztelaniaz)
Uribarri parrokia Zapatua 19:00 (elebiduna)	San Isidro eliza Zapatua 20:00 (euskaraz)
Domeka 11:30 (euskaraz) 12:30 (gaztelaniaz)	Santa Teresa eliza Domeka 12:30 (elebiduna)

OHARRAK

TXOTXONGILOAK AMAIAN
Eguaztenean, hilaren 17an, *Hurbil erreinua* txotxongilo-en ikuskizuna egingo dute Amaia Udal Antzokian. 17:00etan izango da, eta 6-7 urteko umeei zuzenduta dago. Sexologia Zerbitzuak antolatu du.

1954AN JAIOTAKOAK
Bihar, zapatua, 1954an jaiotako emakumezkoek eta gizonezkoek jaia egingo dute. 12:00etan meza entzungo dute. Horren ostean, txikiteoa izango da. Sara jatetxean egingo dute bazkaria. Horretarako, autobusak ipini dituzte. 14:00etan irtengo dira Okoretegi paretik. Oraindik badago joateko aukera.

BALEEN GAINEKO ERAKUSKETA
Eguaztenetik, hilaren 17a, azaroaren 30era, *Bizkaiko Golkoko izurde eta baleak* erakusketa ipiniko dute Monterronen.

GAZTE TXOKOEN X. URTEMUGA
Txatxilipurdi antolatzen dabil gazte txokoen X. urtemuga. Besteak beste, filmak, bazkaria, jolasak eta kontzertuak egingo dituzte.

FILMA, LUDOTEKAN
Hilaren 19an *Kalabaza tripontzia* filma emango dute, Santa Marinako ludotekan, 17:00etan.

AEDrenAGENDA

ARRASATE LEHIAKETETAN ESKU HARTZEKO EPEA ZABALIK
AEDk urtero antolatzen ditu Arrasate Lehiaketak. 2005eko otsailera arte aurkez daitezke lehiaketarako lanak.

URBANOENORDUTEGIA

Gorostizatik Eroskira (2 Linea)
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (2 Linea)
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Inarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.


Gorostizatik Eroskira (1 Linea)
08:30, 09:30, 10:30, 11:30, 12:30, 13:30, 14:30, 15:30, 16:30, 17:30, 18:30, 19:30, 20:30 eta 21:30.
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Zarugalde, Muxibar, San Frantzisko, J.L. Inarra, Makatzena, Obenerreka, Cristo Obrero, Galizia, Joan Bengoa eta Eroski.

Eroskitik Gorostizara (1 Linea)
08:05, 09:05, 10:05, 11:05, 12:05, 13:05, 14:05, 15:05, 16:05, 17:05, 18:05, 19:05, 20:05 eta 21:05.
IBILBIDEA: Eroski, Musakola, Legarre, Maala, Ospitalea, Garibai, San Andres, Arimazuri, Alecop, Uribarri, Erguin A eta Gorostiza.

ORAINDELA 10URTEARRASATEN

Kamioi batek talka egin zion Okoretegi tabernari

Istripu ikusgarria gertatu zen Juan Karlos Gerra kaleko Okoretegi tabernan. 16:00etan, kamioi bat aldapan behera abiatu eta tabernako horman sartuta geratu zen. Eskuko freno sartu barik zeukan. Tabernan zeudenek suso galanta hartu zuten, baina ez zen ezbeharrik gertatu.



BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Goseti"



Gose handikoa.
— Goseti utsa da gure txikixa.

JON IRAEGI

HAUGIROA!

MINIMOA Eguaztena, 3	6 °C
MAXIMOA Eguena, 4	16 °C
ASTEKO EURIA (l/m²)	48,4 L

	Max.	Min.	Euria
Eguaztena, 3	21 °C	6 °C	- l/m²
Eguena, 4	16 °C	7 °C	0,3 l/m²
Egubakoitza, 5	14 °C	11 °C	0,2 l/m²
Zapatua, 6	14 °C	10 °C	- l/m²
Domeka, 7	15 °C	9 °C	- l/m²
Astelehena, 8	12 °C	8 °C	13,4 l/m²
Martitzena, 9	12 °C	9 °C	34,5 l/m²

San Juan auzoan jasotako datuak

ARRASATE IRRATIA FM107.7

DANBAKA))))))

DEBAGOIENEKO I. MUSIKA LEHIAKETA

Arrasate Irratian:

DENIAL (Aretxabaleta-Arrasate):
zapatuan: 16.00
martitzenean: 20.00

DIXIE 900 (Bergara):
domekan: 16.00
eguztenean: 20.00

Denial eta Dixie 900 taldeen kontzertuak, Arrasate Irratiko Danbaka saioan

Asteburu honetan ere, Danbaka Debagoieneko musika lehiaketako beste bi kontzertu entzuteko aukera izango duzue Arrasate Irratian, FMko 107.7an. Zapatuan, Aretxabaleta eta Arrasateko musikariek osatzen duten Denial death-metal melodiko taldearen doinuekin burua astintzeko bidea izango duzue, 16:00etan. Domekan, berriz, Bergarako Dixie 900 taldearen txanda izango da. Poesia oinarri hartutako pop iluneko doinuekin gozatzeko aukera izango dugu. Emakume baten ahotsa

entzungo dugu kontzertu horretan, Vanerena. Ez da Danbakan parte hartuko duen emakume bakarra, baina bai lehenengo ordezkaria.

ASTEBURUKO GAINBEGIRATUAN


Horrez gain, zapatuan eta domekan, 10:00etan, astearren gainbegiratu egingo dugu; astean irratian izandako hainbat lagunengoz solasaldi berreskuratuko ditugu. Besteak beste, jostailu proposa aukeratzeko aholkuak jasoko ditugu Marije Apodaka Urtxintxako hezitzailearen eskutik.



ASTEKO PROGRAMAZIOA

- ZAPATUA**
10:00 **Asteko gainbegiratu**: Marije Apodaka, Urtxintxa eskolako hezitzailea, Ander Rodriguez, Iraken gainean; Amaia Arrizabalaga, Palestinako egoera eta etorkizunaren gainean...
- 16:00 **Danbaka**: Denial.
- DOMEKA**
10:00 **Asteko gainbegiratu**.
- 16:00 **Danbaka**: Dixie 900.
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**
09:00-11:00 **IGO AUTOBUSERA!**
Albistegia.
Eguraldiaren iragarpena (Ioxe Landa).
Elkarrizketak.
Zozketak, etab...
- 11:05 **Musika**
- 12:05 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**
- 12:20 **Zorion agurren tartea.**
- 12:30 **Izarren ordua**: abesti ezagunak
- 13:00 **Euskadi Irratiko albistegia.**
- 14:00 **IGO AUTOBUSERA!** (errep.)
- 17:00, 19:00, 21:00, 23:00 **Arrasate Irratiko albistegi laburra.**

KALEINKESTA/ Kataluñan bautizo zibillek hasi die egitten. Ze pentsetan jatzu?



NEREA JODAR Ikaslie **LIDIA OLALDE** Langillie **IGNACIO FERNANDEZ** Erretiraue **OIER ALIAGA** Langillie **EUGENIO URIBARREN** Langillie **NIEVES KORTABITARTE** Langillie

Neuri ez jat logikue pen-
setan. Bautizuek erlijio-
nekin dauko zerikusixe,
eta hori zibilletik egittie...
Hurrengue ze izengo da,
jauartze zibille egittie? Ez
dot logikue ikusten.

Ba ez dakit ze esan. Neuk
pentsetan dot horreik gau-
zok bakotxak pentsau biher
dauela zelan egin. Horre-
tarako libertadie eukittie
ondo dau, eta bakotxak ele-
gidu daixela.

Horren gaiñien entzun dot
zer edo zer. Neuri ez jat
bape txarto pentsetan, oso
ondo ikusten dot. Bakotxak
egin daixela horreik gau-
zok gure dauen moduen. Ez
daue txarrik egitten.

Izen leike horrek zentzu
haundirik ez eukittie, bau-
tizuek erlijioekin dauko-
eta zerikusixe. Baiñe ondo
dau familixiek hori ospaki-
zunoi elixatik kanpo egin
ahal izeteko aukerie eukittie.

Neuri oso ondo pentsetan
jat. Horreik gauzok bako-
txak gure dauen moduen
ospatu biher dau. Elixara
jueten ez danak euki daixela
ospakizun hori beste modu
baten egitteko aukerie.

Neuri ondo pentsetan jat,
aukerie eukittie biherrez-
kue da. Egixe esatiarren,
neuri horreik gauzok ez
jat askorik inporta, baiñe
elixatik kanpo egitteko
aukerie ondo ikusten dot.

TXIKILOAK ETATXISTUAK



TXIKILOAK MARKESINA TXIKIEGIAK Irakurle batek aditzera eman
dugu astean autobusaren zain egon behar izan zuela Garibain. Euria
gogotik bota zuen eta autobusaren zain zeuden lagun guztiak ez ziren
geltokiko markesinaren azpian sartzen. Horregatik, irakurle horrek
Pesa enpresari edo dagokionari eskatu gura dio geltokiko markesi-
na handitzeko.

ETA BARRUAN...

ORAIN ETA HEMEN /6	KIROLA /9	ZAHARRAK /14
Udalatxen zulo bat egin dute	Eskubaloia domekan	Esteban Aranari elkarriketa
Kanpazar Harro- bia enpresak Udalatxen zulo bat egin du, haren ustiapena azter- tze.	AGR Arrasatek Ormaiztegi talde indartsuaren aurka jokatu du domekan, Iturripen.	Abaroa elkarteko atezain eta tabernari betera- no Esteban Aranari elkarrik- eta egin diogu.

ASTEKO DATUA

36

ZUHAITZ GAIKO BOTA DITUZTE MONTE RRONEN


Astean Monterron parkean 36
zuhaitz gaixo bota dituzte. Gar-
biketa lanak egiteko, gutxienez
bi astean itxita egongo da parkea.
Goiko zuhaitzak ere aztertu
beharko dituzte.

BESTE EKESANA

“ Koloreen kontu
horrekin hasi
ginenean, ez genuen
uste (Bad F-Linek)
bost disko kaleratu
zitueneik. Hasieran, oso ideia ona
irudititu zitzaigun, baina gero eta
zailagoa da, kolore gutxi gelditzen
zaizkigulako. Diskoa egiten dugun
heinean jakiten dugu zein kolore
erabiliko dugun. Ez daukagu azalpen
logikorik, musikak berak esaten digu.
(...) Krisia dagoela diote, eta miraria
izan zen Desobedienciarekin bukatu
eta berehala Oihukarekin kontratua
sinatzea. Aspaldi gura genuen
abestien nahasketak egin, eta
horretarako, hainbat laguni esan
genien gure abestiekin gura zutena
egiteko. (...) Asko harritu dira La
Pollako Evaristok esku hartu duelako,
baina RIPEko *Mahoma*-k ere hala egin
zuen”.

IÑAKI BENGOA
‘POPULAR’/04-11-01

HERRITARREN BERBAK/ Oihan Zubizarreta



Hitzak

Azkeneko gertakariei so
eginez, aktualitatea-
ren zirriborroa
marratu guran,
hitzak etortzen zaizkit burura;
talantea, errepresioa, abiadura
eta *belodromoa*, besteak beste.
Nonahi, noiznahi eta
nolanahi, **TALANTE**az hitz
egiten den honetan,
amorratzen naiz,
gutxien-gutxienez,
berrietan ikusten
ditudanak ikusi eta
gero. Eta batez ere,
politikarien harri-
kadak entzun eta
gero, azken bi
hilabeteotan 34
atxilotu eta tortura-
tu egon direla
ikusita. Komunikabideetan
ere askotarikoa da toxizazioa
eta **ERREPRESIO**aren aurpe-
giak ugariak dira gure
herrian; politiko, judizial,
mediatikoa zein poliziala.
Haatik, *talante* hitzaren adiera
ezberdinen bila jo dut hiztegi-
ra; *jarrera, gogoa, umorea,*
aldartea. Tira, euskaldunoi
falta ez zaiguna dela esango
nuke. Nago, azkenekotan itzali
nahi duten grina eta borroka-
rako gogoa dela, talante

delakoa eta ez hainbestetan
politikari gehienek haien
buruei egozten dieten bertu-
tea.
Baina gertaerak **ABIADU-
RA** bizian ematen diren
honetan, poliki eta apal joan
beharko dute gauzek. Eta tira,
martxak dosifikatzen, etenga-
egiten den honetan,
amorratzen naiz,
gutxien-gutxienez,
berrietan ikusten
ditudanak ikusi eta
gero. Eta batez ere,
politikarien harri-
kadak entzun eta
gero, azken bi
hilabeteotan 34
atxilotu eta tortura-
tu egon direla
ikusita. Komunikabideetan
ere askotarikoa da toxizazioa
eta **ERREPRESIO**aren aurpe-
giak ugariak dira gure
herrian; politiko, judizial,
mediatikoa zein poliziala.
Haatik, *talante* hitzaren adiera
ezberdinen bila jo dut hiztegi-
ra; *jarrera, gogoa, umorea,*
aldartea. Tira, euskaldunoi
falta ez zaiguna dela esango
nuke. Nago, azkenekotan itzali
nahi duten grina eta borroka-
rako gogoa dela, talante
be aurrera goazela
esango nuke nik,
azkenekotan proposa-
menak baitira
horren adierazle
garbiak. Baita
zoritxarrez, pilota
zulatza datozen
eraso eta adieraz-
pen arduragabeak
ere bai. Alec Reid
apaiz irlandarrak
esan zuen gisara: “Zenbat eta
zentzu handiagoarekin jokatu,
ordu an eta gehiago egurtuko
zaituztete”. Eta ziztu bizian ez
bada ere, igande honetan
Donostiako Belodromoan
aurkeztuko den proposamena
da niretzat, bizkorrago edo
motelago, umore onez, aldarte-
an, talantez datorrena. Bizikle-
taren gainean elkartu beharre-
an gaude, nork bere abiadu-
ran, apal, aurrera egin
dezagun.

“Azkenekotan itzali nahi duten grina eta borrokarako gogoa da talante delakoa, eta ez politikariei egozten dieten bertutea”

ASTEABIHITZETAN

Tokiko 21 Agenda azterketa fasean

Mankomunitateak aurrera daraman Tokiko 21 Agenda diagnosi fasean aurkitzen da uneotan. Alde batetik, Udaltxeetan eta udalerriz gaindiko erakundeetan ere hainbat informazio batzen dabil Mankomunitatea, aholkularitza baten bitartez udalerrri bakoitzaren diagnostia egiteko. Herritarren usteen berri jakiteko nahiarekin telefono inkestak egiten dabilta azterketekin batera eta dagoeneko 700 bat inkesta egin dituzte Debagoienean.

Erretiratuendako ortuen egitasmoa

Arrasateko Udalak ortuak egingo ditu Garagartza auzoan, herriko erretiratuek erabil ditzaten. Hala iragarri zuten orain dela hilabete batzuk. Dagoeneko egitasmo hori LKS enpresari esleitu diote, eta abendurako prest egongo dela esan du Udalak.

Gaztetxeen aurkako erasoen salaketa

Arrasaten ere joan den egubakoitzean egin zuten gaztetxeen aurkako erasoak salatzeke kale agerraldia. Udalek eta agintariek gaztetxeen aurka daukaten jarrera arbuia nahi izan zuten kontzentrazioan. Azkenaldian, Barañain, Larrabetzu eta Iruñean itxi dituzte Gaztetxeak eta aurki, abenduaren lehena baino lehen, Santutxukoa husteko asmoa du Bilboko Udalak.

Musikari buruzko argazki lehiaketa

Gaztetxokoen X. urteurrena ospatzeko argazki lehiaketa antolatuta du Txatxilipurdik. Gaia musika izango da eta 12 eta 17 urte artean dauzkaten eta Gazte Txokoetan parte hartzen duten gaztetxoei dago zuzenduta.



Herriko hainbat txoko txukuntzen dabilta

Udala herriko hainbat txoko txukuntzeko lanetan dabil, horien artean udaletxea. Herriko plazan fatxada hobeto argiztatzeko fokoak kokatzen ari da Udala. Asmoa da datorren aste amaierarako lanak amaitzea, baina atzerape-narekin ibili dira orain arte. Aurrekontua 540 mila euro izango da.



USTEAKUSTE/Iker Barandiaran

Legezkoa dena

Bushek AEBetako hauteskundeak irabazi ditu. Badirudi, oraingon, benetan irabazi dituela alproja horrek! Ez dakit AEBetan zenbat galiziar bizi diren eta ez diegu erru guztia galiziarrei botako, baina argi dago, ikusitakoak ikusita, AEBetako eta Galiziako lagunek berdin jokatu dutela. Otsoaren hortzak ikusi eta, hala ere, otsoari

berriro jaten eman diote. Horrez gain, Galindo kalean dago. Hori bai *talante-a*, lotsaren ordez, beste batzuek daukatena.

Euskal Herrian Galindo askatu izanak bazterrak astindu ditu -ez zen gutxiagorako!-. Horrekin lotuta, Askatasuna eta Etxerat taldeek aspaldiko egitasmo bat abian jarri dute zentzu zabalenean. Orain dela 6-7

urte euskal presoak euskal herriratzeko ekimenak oihartzun oso handia izan zuten gizartean. Izan ere, hainbat esparrutako ordezkariek eta gizarteak orokorrean horren aldeko eskaera sendoa egin zuten: Zoritxarrez, hainbat eta hainbat euskaldunen ahalegin hori motelduz joan zen, eta ez zen ezer lortu.

Aspaldiko eskaera hori guztiz legezkoa da eta Espainiako legeek ere hala diote. Ea betetzea lortzen dugun!

ASTEKOIRUDIA



NEGUA DATORRELA-ETA, EGUNAK GERO ETA ILUNAGOAK ETA HOTZAGOAK DIRA

Egunak gero eta laburragoak dira, ordutegi aldatetaren erruarengatik, batetik; eta negua gainera datorkigulako, bestetik. Astean asko jaitsi dira temperaturak eta euria ere barra-barra egin du. Are gehiago, honako hau irakurri orduko, seguruenik inguruko mendien tontorrak elurtuta egongo dira.

Hala iragarri zuten, behintzat. Euriaren erruz, batez ere, errepideetan autoan ibiltzea arrisku-tsuagoa bilakatu da azken egunotan. Bestalde, oinezkoek armairutik beroki sendoenak eta botak atera behar izan dituzte. Egiten duen hotza ez da gutxiago-eta!, /I.B.



Pando
Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak

Ibilgailuak

Stand-ak

Itsasgarriak

Biniloa

Seinaleak

Lonak

Erliebedun hizkiak



ASTELEHENETIK-OSTIRALERA 09.30-20.00
LARUNBATETAN 08.00-14.00
BAINUETXE 10 - 943 77 13 78
ARETXABALETA

ileapaindegia
peluqueria



Taberna
Berri
jatetxea


Durana 26
ARETXABALETA
Tel.943 79 20 67



PRODUKTUAK PROBATZEKO AUKERA HARREMAN GOBERNUZ KANPOKO ERAKUNDEAREN ESKUTIK

Bihar, zapatua, Harremanek Eroskiko sarreran daukan bidezko merkataritza dendan hainbat produktu dastatu ahal izango dituzue. Ekimenaren helburua da denda hori ezagutzera ematea, eta horretarako, ez dago produktu horiek dastatzeko aukera izatea modukorik. Besteak beste, kalitatezko kafea edo txokolatea probatu gura

duenak badaki non duen aukera. Horrez gain, aurtengo Gabonetan ere arte erakusketa egingo du Harremanek, herriko artistek emandako lanekin; gero, lan horiek saldu egingo dituzte, behartsuei laguntzeko. Aurtengo erakusketa egin ahal izateko, Harremanek laster egingo du lanak emateko eskaera. Oraingoan, artistak eskuzabal.



ARRASATEKO PRESOAK ERE EGINGO DUTE KORRIKA, DOMEKAN

Goiko argazkia ez da berri-berria, hiruzpalau urte izango ditu. Behobia-Donostia maratoi erdia egin aurretik ateratakoa da, Arrasateko presoei elkartasuna adierazteko asmoarekin. Badira urte batzuk Arrasateko lagun talde batek presoen izenenean esku hartzen duela herri kros horretan, eta aurten ere beste horrenbeste egingo dute. Ez dakigu domekako proba orain dela urte batzuk baino hobeto prestatu duten, baina hori gutxienezkoa da. Dispersioa salatzea, presoei elkartasuna adieraztea eta egunaz gozatzea; horiexek helburuak.

DARDO KOPA TXAPELKETA, GAUR GAUEAN, PIPPOL TABERNAN

Gaur, egubakoitza, gauean (22:00etan), 15. EH Kola Dardo Txapelketa jokatu dute Pippol tabernan, San Andresen. Antolatzaileen esanetan, bakarkako txapelketa izango da eta cricket eran jokatu dute. Txapelketa jokatu gura dutenek 2 euro ordaindu beharko dituzte, eta 170 euro emango dituzte saritan. Azkenaldian indarra hartu dute horrelako txapelketek; izan ere, gero eta gehiago dira dardo makinak dituzten tabernak. Jakin, baita ere, Jai Zale tabernan abian dela mahai-futbol txapelketa.

Emakumeen aurkako tratu txarrak salatzen duen herri plataforma eratuta

JON BEREZIBAR

Biktima diren emakumeekiko elkartasuna agertu eta tratu txarren gaineko eztabaida gizarteratzeko helburuarekin, herri plataforma aurkeztu zuten martitzenean. Gizonen inplikazioa ere bilatzen dute; horretarako gizonen euren manifestua kaleratu dute.

Martitzenean aurkeztu zuten prentsaurrekoan Emakumeen aurkako tratu txarrak salatzen duen herri plataforma. Herritarrek eta hainbat alderdi politikotako ordezkariak osatzen dute taldea, baina esparru guztietako emakume eta gizonen egin diete batzeko deia. Emakumeen aurkako tratu txarren arazoaren gainean kontzientziatzea da plataformaren helburua, baina gizartea oso osorik inplikatu duen ikuspegi betiere.

GIZARTEA OSO-OSORIK

Plataforma sortzeko ideia tratu txarrak salatzen egiten diren kale agerraldietatik irten zen, Emakume Kontseiluak bultzatuta. Behin hasierako taldea sortuta, Arrasateko gizon eta emakumei indarrak batzeko eskatu zieten martitzeneko aurkezpenean. Mikel Otxandiano taldeko kidearen hitzetan, "eztabaida kalera atera gura dugu eta biktimei gure elkartasuna agertu, pentsamoldeak alda daitezten. Tratu txarren zergatiak atera gura dira kalera, hausnarketa eragiteko. Gizonaren parte-hartzearen garrantzia ere azpimarratu zuten kideek. Horrela, plataformako gizonen lau puntuz osatutako euren manifestua zabaltu zuten, "gu aldatu eta aldameneko gizonak ere alda daitezten, eremu guztietan". Malen Errastik ere hartu zuen hitza plataformaren zereginaren zein izango den argitzeko.



Hainbat esparrutako herritarrek osatzen dute plataforma.

Malenen ustetan, aldaketa nabarmenak egon diren arren, "harremantzeko modu berriak planteatzeko beharra dago". Honenbestez, plataformak tratu txarren salaketa arazoaren errotik egin gura du, hau da, gizarteratik. Berrikusi beharreko ideien artean, maskulinitatearena legoke, plataformaren ustetan. Modu honetan "gizarteraren eraldaketan eragingo litzateke". Honekin batera, "maitasunaren ideia erromantikoa" zalantzan jarri behar dela adierazi zuen Malenek. Izan ere, "emakume askok idealizazio horren pean alde batera uzten dituz bere eginkizun publikoak, etxeko kontuetara mugatuz". Pertsonen arteko harremanak kuestionatu gura dira, hortaz, familiarik hasita. Azken helburua, "espazio publikoan parte-hartze osoa izatea".

Erakundeen jarduna ere errebisatu zuten prentsaurrekoan. Beldintasan politika eraginko-

rren gabezia salatzeaz gain, Udalen esku-hartze zuzena aldarrikatuz. Zuzenean egin zioten deialdia, beraz, Arrasateko Udalarik, daukan jarrera eredu-garria izan dadin.

LANEAN HASTEKO GERTU

Taldearentzat hurrengo deialdi garrantzitsua hilaren 25ekoa izango da, emakumeen aurkako tratu txarrak salatzen nazioarteko eguna da-eta. Egun horretan kontzentrazioa egingo dute herriko plazan. Aurretik, datorren martitzenean, plataformako gizonen sinadura bilteta bati ekingo diote, gizonen inplikazioa biltzeko helburuarekin. Aipatu bezala, dagoeneko gizonen euren manifestua plazaratu dute eta bilerak egiten hasi dira. Guztien parte-hartze osoa bilatzen du plataformak eta horretarako esparru eta mota guztietako gizon eta emakumeen inplikazioa bilatzen dabil une hauetan.

Udalatx barrutik ustiatzeko asmoa du harrobiko enpresak

J.B.

Kanpanzarko harrobia ustiatzen duen enpresa Udalatxetik kareharria ateratzen hasteko aukerak aztertzen dabil. Horretarako, mendian zulo bat egin du, eta horren gaineko azterketak egiten dabil.

ARRASATE PRESSEK jakin duenez Cantera de Campazar SA enpresa Udalatx barrutik ustiatzeko aukera aztertzen dabil uneotan. Mendiaren magalean zulo bat egin eta hortik kareharria ateratzeko asmoa izango luke enpresak, eta dagoeneko horretarako azterketa lanak egiten hasi da. Jakin dugunez, azterketa hau Ovidoko Unibertsitateko aditu batzuek egiten dabilta. Enpresak eskatu die proiektuaren bideragarritasuna frogatzeko, bai teknikoki, ekonomikoki eta baita ere ingurumenari dagokionez. Lehen lanak, gainera, hasita daude, harri batzuk atera omen dituzte-eta eremua aztertzeko asmoarekin. Hala esan digu enpresako arduradun Juan

Luis Etxebarriak. Halaber, ARRASATE PRESSEK jakindakoaren arabera, Udalean gehiengo dute alderdiak jakinaren gainean leudeke eta momentuz ezeko borobilik ez ei du jaso proposamenak.

MENDIAREN AZTERKETA ABIAN

Ovidoko enpresak hiru fasetan banatutako lan proiektua aurkeztu izango luke momentu honetan, harrobia ustiatzen duen enpresa ekainean hala eskatuta. Enpresaren esanetan, azterketa egiteko Jaurlaritzaren baimena lortu zuten. Proiektuaren bideragarritasuna bermatu ahal izateko azterketa sakonagoa egin nahiko luke Cantera de Campazar enpresak. Horretarako, Udalatx barneko gune batzuetatik harria ateratzen hasi dira materialen ezaugarriak zehaztu eta sabaiak dituen segurtasun baldintzak ezagutu aldera.

Enpresak oso argi dauka egitasmoak aurrera egin ahal izateko, honako hiru baldintzak kontuan hartuko dituela: segurtasuna, ingurumenari errespetua eta gizartearen oniritzia.



Murrizketarik handienak domeketako autobus eskaintza izan dira.

Udala kexu da PESArekin, zerbitzu murrizketarengatik

J.B.

Neguko ordutegian egindako murrizketak direla-eta bere desadostasuna agertu dio Udalak PESArekin. Garraio enpresarentzat ez dago erabilteko nahikoa zenbait lineetan, eta horretatik murriztu egin ditu.


Neguko ordutegia dela-eta hainbat murrizketa egin ditu PESA autobus konpainiak bai ordu zein autobus lineetan. Honen aurrean bere desadostasuna agertu dio Udalak, Foru Aldundia bitarteko dela.

Murrizketarik nabarmenak igande eta jaiegunetan egin dira Zumarragatik eta Oñatitik datozen autobus lineetan, eta Eibar-Eskoriatza ibilbidea Gas-

teiza doanarekin ordezkatu dute, zerbitzu gutxiago eskainiz. PESAk erabilteko faltagatik kendu dituela dio, baina Udala ez dago ados eskaintza berriarekin eta kexa idazki bat helarazi dio Aldundiari.

LEHEN NAHIKOA EZ, ORAIN GUTXIAGO

Arrasateko Udalarentzat herriko garraio publikoa nahiko eskasa iruditzen zaio dagoeneko, eta murrizketa berri honekin zerbitzua are gehiago pobretzen dela uste du. Erabilteko kopuruaren gaineko kontuari dagokionez, zerbitzu gutxi daudelako uste du Udalak jende gutxi dabilela autobusez. PESAk, hala ere, bere jarrerari eutsiko diola adierazi du eta momentuz Foru Aldundiak du du bestelako neurririk hartu.



Gabonak gero eta gertuago

Gabon sasoirako ia bi hilabete falta badira ere, Gabonetako argiteria ipintzen hasiak dira jada. Joan den astetik dabilta lanean Udaleko langileak, eta Maala dagoeneko prest dago Gabonei ongietorria egiteko, eta datozen hiru asteetan herriko ohiko kaleak apainduko dituzte. Aurten, gainera, betiko kaleez gain, herriko beste hainbat txokotan ere ipiniko ditu Udalak Gabonetako argiak. Izan ere, auzo guztietako sarreretan argi arkuak kokatuko dituzte aurten. //JON BEREZIBAR

"Laserra ileak behin betiko kentzeko sistema berri bat da"

Lirain estetika zentroko Mari Carmen Pardorekin bildu gara laserraren inguruan informazioa jasotzeko asmoz. Mari Carmen Debagoieneko estetika zentrorik

handienaren arduraduna da, teknologiarik aurreratuenak erabiltzen dituzte bertan, eta laserraren abantailak aurkeztuko dizkigu ondoren.

Zertan datza laser depilazioa?
Ileak behin betiko kentzeko sistema berri bat da. Minutu gutxiko saio gutxi batzuekin gutxienez hilearen %80a desagertzen da. Gainera, beste teknika batzuen aldean ez da minkorra eta ez du bigarren mailako efekturik. Azken generazioko laser teknologian oinarrituta dago. Pixkanaka ilea desagerrarazten du, eta iraunkorra da.

Gorputzeko edozein ataletan egin daiteke laser depilazioa?
Bai, gorputzeko atal guztietan, emakume zein gizonezkoetan eta atal sentikorrenetan ere bai. Emakumezko gehienek aurpegia, hankak, besapeak eta izterondoak egiten dituzte; gizonezkoek, aldiz, masailalboa, bizkarrak eta bularra. Gainera, kirolariak hasi dira dagoeneko laserra hantetan erabiltzen.

Ile mota ezberdinak daudela kontuan harturik, laser ezberdinak daude ile mota bakoitzarentzako?
Bai. Ez da berdina ile sakon eta

gizen bat tratatzea edo ile fin eta gaztaina kolorekoa izatea.

Lirain-en zein laser mota duzue?

Bailaran laser plataforma dugun bakarrak gara. Ile bakoitzarentzako laser mota bat dugu, urteko 365 egunetan erabilgarria.

Alejandrita laserra: oso egokia da tratamenduetan akabera onak emateko.

Neodimio-yag laserra: laser honek azala zeharo mindu gabe depilatzea lortzen du.

IPL-fotodepilazioa: hobeto berreratzea lortzen da aparailu honekin, gorputzeko atal handiagoi heltzen die, eta emaitza onak lortu.

“

Lehenengo saioan dagoeneko ile portzentaje handi bat desagertzen da.

“

Bailaran laser plataforma dugun bakarrak gara Lirainen.



M. Carmen Pardo Abad
Lirain Zentruko arduraduna

Zerbait egin behar da laserrarekin hasi aurretik?

Kontuan izan behar da medikamentu fotosentikorren bat hartzen den tratamendua egiten dugun bitartean, eta zein laser

mota hartzen dugun arabera, egun batzuetan eguzkirik ez hartzea gomendatzen dela tratamenduari hasi aurretik eta ondoren.

Zein da momenturik egokiena tratamenduari hasteko?

Orain da momenturik egokiena, azala eguzki izpirik jasotzen ez duelako urteko sasoi honetan.

Tratamendu mota hauek gizonzkoek ere egiten dituzte?

Egia esanda, gero eta gizon gehiagok laserraren plazera probatzen du, bere azkartasunagatik. Kirolariak ere asko etortzen dira, emaitza onaren erosotasunaz gozatzeko.

Noiz hasiko gara laserraren emaitzak igartzen?

Lehenengo saioan dagoeneko ile portzentaje handi bat desagertzen da.

Zein maiztasunekin egin behar ditugu laser saioak?

Aurpegian tratamendua jasotzen dugunean, hasieran 4 edo 6 astean behin. Gorputzeko edozein ataletan jasotzen badugu, berriz, bizpahiru hilean behin. Gero, saioak urritu egiten dira.

Garestia da laser tratamendu bat?

Kontuan izaten badugu epe laburrean ilearen %80 desagerrarazten duela eta honek epe luzera dakarren erosotasuna eta aurrezteak, ez dela batera garestia esan dezakegu. Gainera, Lirainen bi aukera eskaintzen ditugu: bata, aurrekontu itxi baten arabera. Honek ziurtatzen du lehen aipatutako emaitzak lortuko direla. Bestea datza bezeroak galdu nahi duen ilearen arabera saio kopuruak ematean.

Arriskutsua izan daiteke?

Segurtasun arauak jarraitu ezkerro ez. Guk ditugun ekipo guztiak Eupar Batasuneko segurtasun arauak zorrotz betetzen dituzte.

Ahaztu zaitez depilazioaz

Ezagutu laserraren atsegina

Lirain, Bailaran laser plataforma duen zentro bakarra

YAG

Barizeak eta Kuperosis aurkako tratamenduak (medikuarekin)

Fotodepilazioa.IPL

Azkarra eta emaitza onak

ALEJANDRITA

Gaztaina koloreko ilearentzat aproposa



ESKATU AURREKONTUA KONPROMISORIK GABE. HASIERAKO FROGA DOAN.

Debagoieneko estetika-gunerik haundiena. Teknika eta tresneria aurreratuenak zure esku.

Bixente Ferrer, 1

20500 ARRASATE

Tel: 943 79 52 17


LIRAIN
ESTETIKA-ZENTRUA

Etxebizitza hutsak alokairuan jartzeko kanpaina hasi du Udalak

JON BEREZIBAR

Kanpaina Gabon inguruan egingo den arren, dagoeneko abian da Arrasaten Etxebide programa. Hutsik egon eta alokairuan jar daitezken etxebizitzak merkatua sustatu nahi du Udalak Jaurilaritzarekin batera, maizterrentzat errenta eskuragarriekin.

Erroldaren arabera inor bizi ez den 700 bat etxebizitza daude Arrasaten eta beste 300 lagunek alokatzeko arazoak dituzte. Etxebide programan, era berean, alokatzeko prest dauden beste 300 bat jabeek izena eman du dagoeneko. Biak lotzeko, jabe eta maizterren errolda osatzen hasiko da Udala.

Jabeari dagokionez, erraztasunak eta berme guztiak eskaini nahi dizkio Udalak programa honekin. Berritzea behar duten etxeetarako 18.000 euroko dirulaguntza eskaintzen du Udalak, interesak kobratu gabe itzultzekoa. Lan horiek Visesa enpresak egingo ditu. Udalarekin egindako akordioaren arabera, berritzerako dirua maizterari kobratuko zaion errentatik deskontatuko du Visesak, zatika, esan bezala, inolako interesik kobratu barik. Visesak 5 urterako kontratua sinatuko du jabe bakoitzarekin eta epe honen buruan lotura hautsi egingo da.

ALOKAIRU ESKURAGARRIAK

Bigarren alderdiari dagokionez, hau da, maizterra, errenta sozialaren araberrako alokairua pagatuko du (soldataren %30 gehiezin). Alokairua ere 5 urtekoa da kasu honetan eta ez da 660 euro baino gehiagokoa izango. Programa honetan parte hartzeko Etxebideren zerrendetan egon beharra dago eta dagoeneko par-



Arrasaten, erroldaren arabera inor bizi ez den 700 etxebizitza daude.

Berritzeetarako, interesik gabeko 18.000 euroko dirulaguntza emango dute

Maizterrek errenta sozialari dagokiona ordainduko dute alokairu bezala

taide direnek euren egoera aldatu beharko dute. Xehetasunak Jaurilaritzako informazio zenbakian (012) edo udaletxera deituta eska daitezke. Visesa enpresak, berriz, etxebizitza utzitako baldintzetan itzultzeko konpromi-

soa hartzen du eta maizterrek errenta ez badu pagatzen jabeak berdin jarraituko du hileroko alokairua jasotzen, huts hori betetzea ere Visesaren ardura izango da eta kontratuaren arabera, berme guztiekin.

Monterron parkean, gaixo zeuden 36 zuhaitz bota dituzte oraingo astean

JON BEREZIBAR

Gaixo zeuden 36 zuhaitz bota dituzte aste honetan Monterron parkean. Honen ostean garbiketa eta mantentze-lanak egingo dituzte, eta datorren astean ere itxita egongo da parkea. Laster goiko zuhaitzak aztertuko dituzte, bertan ere gaixo daude eta asko.

Oraingo astean bota dituzte Monterron parkean gaixo zeuden zuhaitzak, guztira 36. Botatze lanak aste honetan amaitu dituzten arren, parkeak oraindik itxita jarraituko du datozen asteetan, mantentze eta garbiketa lanak egingo dituzte eta. Izan ere, arriskutsuak izan daitezke-

en arramak bota eta lanengatik sortutako hondakinak botako dituzte hurrengo egunetan.

ZALANTZAK ETORKIZUNARI BURUZ

Udala parkearekin zer egin aztertzen ari da orain. Goiko basoko zatiaren egoera dago orain koloan, eta laster egingo da goiko iturritik gorako zuhaitzen azterketa. Halaber, etorkizunari begira asko dira sortzen diren zalantzak eta erabaki asko hartzeko daude. Zuhaitzak birlantatzeko asmoari dagokionez, ez da botatuko zuhaitz kopuru bera sartuko. Izan ere, egindako ikerketaren arabera, bizitzeko espazio urriarengatik gaixotu ziren zuhaitzak, eta ez da akats berbera berrirori egin gura. Diru kontuak ere zeresana

izango dute birlantaketan. Izan ere, aditu bati esleitu dio lan hori Udalak, eta Italiatik ekarriko liriteke zuhaitz berriak hasiera baten. Zuhaitzik merkeenek 600 euro balio dute, eta honi garraio kostuak gehituz gero, oso garestia izan daiteke birlantaketa. Beraz, oraindik hainbat aukera aztertzen dabil Udala. Horien artean, parkearen kudeaketa ere adjudikatze dago, iraganean egindako akatsak ekidin nahi dira eta.

Momentuz garbiketa lanak amaitu arte ez da parkea zabalduko eta etorkizunaren gaineko erabakiak oraindik zalantzan daude, eta horien artean, parkeari zer erabilera emango zaion esan beharko da.



Arrasateko euskalgintza

Euskarazko eredueta matrikulatzen dira ikasleak

IKER BARANDIARAN

Udaleko Hezkuntza Sailak Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako matrikulazio datuak jaso ditu. Euskarazko ereduak dira aukeratuenak.

Udaleko Hezkuntza Sailak 2004-2005 ikasturteko Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako matrikulazio datuak jaso ditu. Ikasturte honetan matrikulatu direnen artean, honako eredu aukeraketa egin dute: %66,5ek euskaraz hutsezkoa -D eredu- aukeratu dute; %27 ia erabat euskarazkoa den Murgiltze eredu eman dute izena -ama hizkuntza gaztelerez izan arren, txikitatik euskaraz murgiltzearen aldekoa-; %6k aukera elebidunean -B eredu- eman dute izena; eta bukatzeko, %0,5ek gaztelerezko aukeraren alde -A eredu- egin dute.

Azken 20 urteotako matrikulazio datuen bilakaera aztertu ondoren, ikus dezakegu A ereduaren gaineko eskaera desagertuz doala, eta B ereduaren gainekoa oso txikia dela. Horren parean, D ereduak da aukeratuena, eta Murgiltze ereduaren matrikulazio portzentajeak ere oso handiak dira. Euskalgintzaren esanetan, hori guztia posible izan da

herriko ikastetxeek -publikoak eta pribatuak- euskararen normalizazioaren alde egin duten lan guztiarengatik.

Horrez gain, nabarmendu behar da gaur egun Haur Hezkuntzan eta Lehen Hezkuntzan ez dagoela inor A eredu matrikulatuta. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan, berriz, batzuk daude, baina oso kopuru txikia da. Aztertu ditugun ikasle guztietatik (HH, LH eta DBH), 2004-2005ean %0,5 bakoitza A eredu. 1982-1983 ikasturtean, berriz, %46,59 zebiltzan.

Bestalde, azpimarra daiteke irakaskuntza elebiduna aukeratzekoan, gehienak Murgiltze eredu matrikulatzen direla; eta oso gutxi B eredu. Horrek esan gura du euskararen presentzia oso handia dela, Murgiltzeko da eta bigarren eredu aukeratuena, D ereduaren ostean.

Irakaskuntza ertainari dagokionez (Batxilergoa, Hezkuntza Zikloak eta I. Moduluak), ikasleek bi herenak D eredu matrikulatu dira.

Herriko ikastetxeek lan handia egin dute euskararen normalizazioaren alde

D eredu matrikulatzen da ikasle gehien; eta Murgiltze eredu da bigarrena

URTEA	HH+LH+DBH (Lehen, Eskolaurrea + OHO + IEEko 1. zikloa edo BBBko 2. ikasturte)			
	A EREDUA	B EREDUA (Murgiltze-eredu)	B EREDUA	D EREDUA
1982-83	46'59	--	21'19	32'22
1985-86	29'25	--	36'04	34'71
1990-91	7	--	54'37	38'63
1993-94	0'5	18	38	44
1994-95	0	28	26	46
1995-96	0'2	35	16	48'6
1996-97	0'2	41	7	51'8
1997-98	2'6	26	18'4	53
1998-99	0'8	28'4	16'2	54'7
1999-2000	0'6	27'4	16'2	56'5
2000-2001	0	31'8	13'8	54'4
2001-2002	0'4	30'3	16'9	59'4
2002-2003	0'52	26'3	9'18	64'01
2003-2004	0'72	26'85	4'11	68'72
2004-2005	0'5	27	6	66'5

Honako datuak Udaleko Hezkuntza Sailak jaso ditu, herriko ikastetxeek emanda. Matrikulazioa egiterakoan, ikasleek egin duten eredu aukeraketa erakusten du. Ikasturte ikasturte izan den bilakaera ere ikus daiteke.



AITOR LIZARRALDE

Argazkiko jokaldian moduan, domekan ere gogotik lehiatuko beharko dute Andoni Arandoren mutilek.

ESKUBALOA

Territorialeko bi 'oilar', Arrasate eta Ormaiztegi, nor baino nor gehiago

Bi talde horiek galdu egin zuten joan den astean, eta bietako inork ez du akats gehiago gura

XABIER URZELAI

AGR Arrasatek eta Ormaiztegiak domekan jokatu dute elkarren kontra (Iturripen, 11:00etan). Ligako talde indartsuenetakoak dira, baina joan den astean ez zuten hori erakutsi. Indarrak pare-parean daude, eta ezin da akats gehiago egin.

Ez AGR Arrasatek eta ezta Ormaiztegi ere ez zuten joan den astean lana behar den moduan egin, eta oraingo astebururako pilatu zaizkie etxerako lanak. Bidasoarekin eta Donibanerekin batera Ligako

talde indartsuenetakoak dira, baina kantxan erakutsi behar da hori.

JOAN DEN ASTEAN, BIAK TXARTO

AGR Arrasatek bi goleko aldeagatik galdu zuen Urolan (31-29). AGRko entrenatzaile Andoni Arandok esan digu Zumarragan galtzea ohitura bilakatu dela: "Azkeneko urteotan betik galdu izan dugu han. Ez dakit ondoegi ezagutzen gaituzten edo zer, baina ez gara gauza Zumarragan irabazteko. Horren errua, baina, ez da jokariarena bakarrik, neuk ere ez nuen asmatu-eta nola defendatu behar genuen erabakitzerako orduan". Domekan kontrario izan-

go den Ormaiztegi ez zuen Donibaneren kontra itxura hobea erakutsi: "Gure taldeko hainbat jokalarik Donibaneren eta Ormaiztegiaren arteko partiduan izan ziren, eta euren esanetan, Ormaiztegi ez zuen ezer ere ez egin. Hala ere, badakigu ormaiztegiarrak sendoak direla. Beteranoak izan barik esperientzia handia daukate. Gainera, postu bakoitzean min egin dezaketen jokalariek dituzte, eta ezin da aurretik jakin nola egingo duten eraso. Entrenatzaileak, Iñaki Anbrosoiak, ondo ezagutzen du eskubaloia, eta domekan irabazteko badakit oso ondo egin beharko dugula lan".

ZALDIBARARETOFUTBOLA

EMAITZAK

Abokajarro - You Know!	2-7
Torpedo Musakola - Goma2	2-4
Tomahawk - AT Celaya	1-5
Saukelu Scream - Billy & The cowboys	6-4
Fuxion - Irati Taberna	3-6
Iriztu - HLB 108	1-2
AC Surcos - Manhattan Pippol	4-3
Lasagabaster - Dribling	4-4
La Kuadrilla - Ekipo Aldeano	5-8
Betrayer	Deskantsua

SAILKAPENA

MULTZO BAKARRA	P	J
1. You Know!	6	3
2. AC Surcos	6	3
3. HLB 108	6	3
4. Goma2	6	3
5. Irati Taberna	4	3
6. Betrayer	4	3
7. AT Celaya	4	3
8. Saukelu Scream	4	3
9. Ekipo Aldeano	3	3
10. Lasagabaster	3	3
11. La kuadrilla	2	3
12. Billy & The cowboys	2	3
13. Iriztu	2	3
14. Dribling	1	3
15. Torpedo Musakola	1	3
16. Fuxion	0	3
17. Tomahawk	0	3
18. Abokajarro	0	3
19. Manhattan Pippol	0	3

PARTIDUAK

AZAROAK 13, ZAPATUA. EPAILEAK

- 11:00: Billy & The. - Lasagabaster. AT Celaya
- 12:00: AT Celaya - AC Surcos. Billy & The...
- 13:00: HLB - Ekipo Aldeano. AC Surcos
- 14:00: Irati Tab. - La Kuadrilla. E.Aldeano
- 15:00: Torpedo Musa. - Fuxion. La Kuadrilla
- 16:00: Tomahawk - Saukelu. Torpedo Mus.
- 17:00: Abokajarro - Manhattan. Tomahawk.

AZAROAK 14, DOMEKA. EPAILEAK

- 12:00: You Know! - Iriztu. Betrayer
- 13:00: Betrayer - Dribling. Iriztu

Deskantsua: Goma2.

PARTIDU INTERESGARRIAK, ETA ZIGORRAK

IRIZTU TALDEKO JOKALARI BAT ZIGORTUTA

Joan den astean, HLB taldeak alde txikiagatik irabazi zion Irizturi (1-2), eta norgehiagoka horretan eskuratutako bi puntuei esker dago talde hori orain arteko talde onenen artean. Markagailuak erakusten du indarrak pare-parean izan zirela eta tentsio handia izan zela norgehiagokan. Tentsio horri eutsi ezinka, Iriztu taldeko jokalariek batek ez zuten garbi jokatu, ostikada zatarrak eman zion-eta kontrarioari. Hori dela-eta, antolatzaileek bi partiduko zigorra jarri diote jokalarik horri.

Oraingo asteburuar dagokionez, antolatzaileek partidua hauek ikusteko gomen-dioa egiten dizuete: Iriztu-You Know!, Betrayer-Dribling, AT Celaya-AC Surcos eta Billy & The Cowboys-Lasagabaster. Norghehiagoka batzuk goialdean dabilzan taldeek elkarren kontra jokatu dutelako da, baina beste partidua batzuetan elkar ezagutzen duten taldeak ibiliko dira nor baino nor gehiago, eta horiek izaten dira ikusgarrienak.

FUTBOLA

Mondra beldur barik joango da Errenteriara

Azkeneko bi partidua irabazita Mondrak beheko postuak atzean utzi ditu, eta hamargarrena da dagoeneko. Horri esker, arrasatearrek lasaiago jokatu ahal izateko eskuratu dute, eta baita Errenteriara beldur barik joateko konfiantza ere. Touring taldea 15.a da sailkapenean, baina Mondrak baino puntu bat gutxiago baino ez du. Alde txikia dagoen txapelketa horretan, etxetik kanpo lortzen diren puntu guztiak izango dira ongiatorriak. Izan ere, inork ez du Atxabalpen garaipenik ziurtatzen.

ERRUGBIA

Zarautz eta Arrasate: indarrak pare-parean

Euskadiko Mailara igo berri diren Zarautz eta Arrasate izango dira zein baino zein domekan (Zarautzen, 12:00etan). Joan den urtean lehia polita izan zuten bi talde horiek, eta aurten bestelako helburua badute ere, euren arteko partidua ez du interesik galdu. Arrasatek Zarautzek baino puntu bat gehiago du, baina Zarautzen zelaian irabaztea ez da erraza izango. Etxeko partidua dira irabazi beharrekoak, baina Zarautzen punturen bat eskuratzea izugarri eskertuko luke Arrasateko taldeak.

PILOTA

Kontrario gogorra izango du Lazkanok bihar, Uarkapen

Gipuzkoako Txapelketa barruan, senior mailako pilota partidua izango da bihar eguerdian Uarkapen. Aitzol Lazkano pilotari arrasatearra bigarren fasera sailkatu da, jokatu dituen sei partiduetatik lau irabazita. Bihar, baina, norghehiagokarik galdu ez duen Oinatz Gonzalez izango du kontrario Uarkapen. Gazte mailako pilotariei dagokionez, Ortiz de Mendibilek besoa hautsi du, eta Uribarrenek jokatu du bere orde. Partidua Ikaztegietan jokatuko dute gaur gauean (21:00etan).

KIROLAGENDA

JOKATZEKOAK

FUTBOLA

- Touring - Mondra. Preferentea. Zapatuan. 17:00. Errenterian.
- Mondra - Euskalduna. Ohor. Gazteak. Zapatuan. 15:30. Atxabalpen.
- Orioko - Arrasate. Gazteak. Domekan. 16:00. Orion.
- Arrasate - Aldapetarrak. Ohor. Kadeteak. Zapatuan. 12:00. Atxabalpen.
- Arrasate - Ondarroako Aurrera. Infantilak. Zapatuan. 09:45. Atxabalpen.
- Bergara - Mondra. Emakumeak. Zapatuan. 12:00. Ipintzan.

SASKIBALOA

- Mugarri Alkesa - Zarautz. Juniorrak. Zapatuan. 12:00. Musakolan.
- Mugarri Alkesa - Cafes Aitana. Kadeteak. Zapatuan. 10:00. Musakolan.

ERRUGBIA

- Zarautz - Arrasate. Seniorrak. Zapatuan. 12:00. Zarautzen.
- Gaztedi - Arrasate. Kadeteak. Zapatuan. 11:30. Lakuan (Gasteiz).

ESKUBALOA

- AGR Arrasate - Ormaiztegi. Lehen Territ. Domekan. 11:00. Iturripen.
- Pulpo - Arrasate. Big. Territ. Domekan. 11:00. Zumaian.
- Zarautz - Gatz Museoa Jakion. Gazteak. Mutilak. Domekan. 10:15. Zarautzen.
- Arrate - Arrasate. Gazteak neskak. Zapatuan. 18:30. Eibarren.
- Ereintza - Arrasate. Infantilak. Domekan. 10:30. Donibanen.

PILOTA (GIPUZKOAKO TXAPELKETA)

- Aitzol Lazkano - Oinatz Gonzalez. Seniorrak. Zapatuan. 12:00. Uarkapen.
- Ikaztegieta - Arrasate. Gazteak. Gaur. 21:00. Ikaztegietan.

EMAITZAK

- ERRUGBIA**
- Seniorrak. Arrasate - Getxo 11-42
- FUTBOLA**
- Preferentea. Mondra - Zarautz 1-0

ELKARRIZKETA

BINGEN DE PEDRO/MARGOLARIA

“Ezertan pentsatu barik margotzen dut, eta margolana azaldu egiten da”

IKER BARANDIARAN

Bingen de Pedro margolari bergararrak erakusketa ipini du Arregi galerian. Esperientzia handia dauka, eta gaur egun barru-barrutik ateratzen zaizkion margolanak egiten ditu. Irakaslea izan zen Arrasaten.

Noiz hasi zinen margotzen?

Bada, 6-7 urterekin hasi nintzen marrazkiak egiten. Zaletasun handia neukan. Horren ostean, hamar urterekin, Mari Paz Alustizak margo eskolak eman zizkidan. Sasoi hartan Bergaran margotzeko tradizio handia zegoen eta orduko margolariak zer egiten zuten begira ibiltzen nintzen hara eta hona: Okinak, Alustizak, Juaristik... Askok ikasi nuen haiekin. Orduan erabaki nuen nire kasa ikastea eta horretan jardutea. Horregatik, Gasteizko Arte eta Lanbideen Eskolan urtebete egin nuen.

Atzerrira ere jo zenuen, ezta? Zelakoa izan zen esperientzia hura?

Bai, gaztetan, 1981ean, Parisera joan nintzen eta han, Arte Ederrak ikasten ibili nintzen lau urtean. Parisen asko ikasi nuen. Ez bakarrik teknikari dagokionez. Horrez gain, ikuspegia asko zabaldu nuen, jende askorekin harremana egin nuen, margotzeko kliseak ezabatu egin nituen... Oso positiboa izan zen, zentzu guztietan.

Zer garapen izan du zure margotzeko estiloak?

Mari Paz Alustizarekin arte figuratiboa eta paisaiak egin nituen, batez ere. Horren ostean, errealismoa landu nuen. Handik aurrera, ia denetik egin dut. Eta azkenaldian, ia lan abstraktuak egiten ditut. Orain, ez dut inoiz zirriborrorik egiten, eta aurreiritzi barik lan egiten dut. Ezertan pentsatu barik margotzen hasten naiz eta emaitza azaldu egiten da. Subkontzientearen adierazgarri dela uste dut. Barruan daukagun paisaia edo pentsamendua agerira irteten da. Margolan bakoitzak esanahiaren bat dauka, baina nire asmoa ez da mezu bat ematea. Ez dakit azaltzen koadro bakoitzak zer esanahi daukan, oso zaila egiten zait, eta gainera ez dut hori egin gura.

Zaletasuna lanbide dauka-zu?

Ez naiz margotzeari esker bakarrik bizi, baina egiten ditudan lan gehienak harreman handia daukate horrekin: eskolak ematen... Gaur egun oso zaila da margolanak egitetik bizitzea. Hala ere, oso komenigarria da ahalik eta askatasun handien iza-



“Arrasaten Bergaran baino geroago hasi ziren, baina orain margolari gehiago daude”

tea margotu ahal izateko eta ahalik eta denbora luzeen horri eskaintzea.

Zer da pinturak eman dizun onena?

Gauzen eta pertsonen aurrean izateko modu bat eman dit. Artearen funtzioa heztea da, positiboa eta sentikorra izatea. Hori da margolaritzak, artea den heinean, eman didan gauza garrantzitsuena. Horrez gain, egia da gauzak sortzeak eta jendeak lan horiek eskuratzeak poztu egiten zaituela, baina hori ez da hain garrantzitsua beste horrekin alderatuz.

Hainbat urtean Arrasaten margolaritza eskolak eman zenituen. Zer-nolako harrobia dago hemen?

“Parisen asko ikasi nuen. Bai teknika aldetik eta baita ere ikuspegia zabaltzea lortu nuelako”

Bai, 1984an Familia eta Gizarte-prestakuntzako Zentroan hasi nintzen irakasle, eta han ibili nintzen itxi zuten arte. Oso oroitzen onak dauzkat. Izan ere, erakusteaz gain, irakasleek ikasleengandik ere asko ikasten dugu. Besteak beste, honako ikasleak gogoratzen ditut: Jabi Mayor, Enuska Zabalo, Gorka Zubizarreta, Juan Luis Lizarralde, eta abar. Gaur egun Arrasatek maila ona dauka. Horra hor, esaterako, Iñigo Arregi, Goikolea... Arrasaten Bergaran baino geroago hasi ziren, baina orain margolari gehiago daude.

Bestalde, aurtengoa da lehengo aldia azken 20 urteotan eskolarik ematen ez dudana. Proba egin gura nuen.

KULTURAPILULAK

AEDko Bertso Eskolak bertso afaria egingo du hilaren 26an, AEDko txokoan

Azaroaren 26an, bertso afaria egingo dute AEDko txokoan. Hala iragarri digute AEDko Bertso Eskolako lagunek. Besteak beste, Xabier eta Fredi Paia anaiek esku hartuko dute –ezagun da AEDkoek ere bertsoetarako sena dutela–. Plaza mugatuak egongo dira, afaldu eta bertsoak entzuteko. Horregatik, komeni da lehenbailehen izena ematea. Horretarako, interesatuek AEDko bulegora jo beharko dute (Pablo Uranga 4). Bazkideek 15 euro ordaindu beharko dituzte. Gainontzekoek, berriz, 18 euro.

Iamari tabernak II. Kafe-antzerki Txapelketa egingo du gaurtik abenduaren 3ra arte

Iamari tabernak eta Oliver produkzio-etxeak II. Kafe-antzerki Txapelketa antolatu dute. Ikuskizunak egubakoitzetan izango dira, 00:00etan, eta doan. Gaur, egubakoitza, El peli aktoreak *Etapas de la vida* umorezko ikuskizuna egingo du. 19an, The Lur taldeak *Monologos* lana eskainiko du. Hilaren 26an, *La muerte y Nat* komedia antzetzuko dute; eta abenduaren 3an, Alex Barredo umorista.

Beldurrezko film bat, ezohiko komedia bat eta ‘Doraemon’

I.B.

Asteburuan, beldurrezko *El bosque* filma emango dute. Horrez gain, gaztetxoek *Doraemon, gladiadorea* euskaraz ikusteko aukera izango dute. Eguenean, berriz, *La memoria de los peces*.

Domekan ez dute filmik emango Amaia Udal Antzokian, antzerkia dagoelako. Zapatuan eta astelehenean, berriz, beldurrezko *El bosque* lan ezaguna emango dute. Promozio handia izan duen film horrek 108 minutu irauten du eta Manoj Night Shyamalanek zuzendu du (*El sexto sentido, Señales...*).

XIX. mende bukaeran, herri txiki bateko biztanleak kanpoan dagoenaren beldur dira. Herriko hiru gaztek kanpoan zer dagoen ikusi gurako dute, baina horrek


kaosa ekarriko du herrira, hala beharrez.

Protagonistak honako hauek dira: Bryce Dallas (*Quills, Gladiator...*), Adrien Brody (*El pianista, Pan y rosas...*) eta Sigourney Weaver (*Alien, Holes...*), besteak beste.

ROBOTEN ETA GIZATIAURREN ARTEAN

Bihar, zapatua, *Doraemon, gladiadorea* animaziozko lana emango dute gaztetxoendako. 81 minutu irauten du, eta Tsutomu Shibayamak zuzendu du. Doraemonen gainean egiten duten laugarren filma da.

Eguenean, zineklubean, *La memoria de los peces* film irlandarra emango dute. 85 minutu irauten du eta Elizabeth Gillek zuzendu du (*Oro en las calles...*). Maitasunaren gaineko komedia berezia da, baina aldena egiten da hala-ko lanen ohiko argumentuetatik.



El bosque filmak ez ei du halako beldurrik sorrarazten.

ZINEMA-MUNDUKO SUKURTSAL BAT

Film-giroko tratu bat Protagonista bat: zu zeu. Zatoz.

LAGUN ARO FILMS



▷ 23A

24



▷ 24 A

25



▷ 25 A

26

Berrikuntza guztiak, ordutegi berri eta zabala, eta zerbitzurik onena, zu zeure eta zure familiakoen lasaitasuna segurtatzeko pentsaturik.



24



▷ 24 A


25



▷ 25 A

26

Lagun Aro Arrasate
Otalora I
☎ 943 79 20 77

 **LAGUN ARO**
SEGUROS - ASEGURUAK
Beti zugan pentsatzen



Hainbat pasarte bitxi kontatuko dituzte antzezlanean.

ADOS

'El Decameron' ikuskizuna, domekan, Ados antzerki taldearen eskutik

IKER BARANDIARAN

Etzi, domeka, Ados antzerki talde veteranoak Boccaccioren *El Decameron* antzezan ezaguna eskainiko du Amaia Udal Antzokian. 19:30ean izango da klasiko horren moldaketa.

Domekan, antzerkira joateko hitzordua egingo dute askok. Izan ere, Ados antzerki taldeak Boccaccioren *El Decameron* lan klasiko eskainiko du. 19:30ean izango da, Amaia Udal Antzokian.

Boccaccioren lan hori dagoneko klasiko bilakatu da. 1348an, Florentzian izurria zabaldu egin zen, eta hori abiapuntu hartuta, Boccaccio bere lan garrantzitsuena idatzi zuen. *El Decameron* lanean honako istorioa kontatuko dute: hainbat lagun ondo-hezitakoak, zoriontsuak eta zuhurrak hiriaren kanpoaldeko luxuzko etxe baten ezkutatuko dira, izurria bukatu arte.

Etxe horretan egin beharreko egonaldian, denbora-pasa moduan, ipuin bitxi eta alaiak elkarri kontatzen hasiko dira. Halako jarreraren eta egoeren gaineko istorioak kontatuko dituzte, inolako lotsa barik: amodio lizunak, pasioak, bekaizkeriak, jelskortasunak, adulterioak, iruzur egin dieten senarrak, ema-

kumezkoen atzetik dabilzan apaiak, fraideak ezkututzen dituzten emakumezkoak eta trikimailu gaiztoenak erabiltzen dituzten emakumezkoak, besteak beste. Pertsonaia guzti horiek eta beste batzuek esku hartuko dute lan horretan. Hainbat adituk lan hori lotsagabetzat eta bitalistatzat dute. Are gehiago, aditu horien esanetan, lan horrek oso modu argian azaltzen du zelan erabil daitekeen barrea heriotzaren antidoto moduan, muturreko egoeretan.

*Lan horrek
erakusten du barrea
heriotzaren
antidoto moduan
zelan erabili*

*Boccaccioren istorio
hori zeharo
lotsagabea eta
bitalista dela esan
dute askok*

Ados antzerki taldeak klasiko hori moldatu egin du, eta hainbat antzokitan eskaini du. Arrasaten, adibidez, honako aktoreek esku hartuko dute domekan: Javier Barandiaran, Josean Bengoetxea, Jon Ezkurdia, Alvaro Garaialde eta Martxelo Rubiok, hain zuzen ere.

GARBI LOSADAK ZUZENDU DU

Lan horren moldaketa Jose Antonio Vitoriak eta Garbi Losadak egin dute. Eta Losadak berak egin ditu zuzendari lanak, Koldo Losadaren laguntzarekin. Ekoizpena eta banaketa lanak Gaupasa enpresak egin ditu.

Ados antzerki taldeak ibilbide luzea dauka. 1994an sortu zuten antzerkigintzan eta beste hainbat esparrutan denbora luzean ibilitako hainbat lagunek. Euren asmoa da hainbat esparru landuko dituen talde zabala sortzea. Orain arte, besteak beste, honako ikuskizunak eskaini dituzte: *Lamiak* (1996), *Desperrados* (1998), *Manolito Gafotas* (1999), *El amigo de John Wayne* (2002), *Sopa de ganso* (2003), *Las mujeres de verdad tienen curvas* (2003) eta etzi Amaia Udal Antzokian egingo dutena.

Horrez guztiaz gainera, euren antzezlanean hainbat sari jaso dituzte Euskal Herrian eta baita Espainian ere.

Jon Urrazaren bakarrizketak, Kultur Errotaren bitartez

I.B.

Datorren egubakoitzean, hilaren 19an, Jon Urrazak bakarrizketa barregarriak egingo ditu Jai Zale tabernan. AEDk eta Topaguneak antolatu dute, Kultur Errotaren bitartez. Doan izango da.

AEDk eta Topaguneak tinko jarraitzen dute noiz edo noiz musika kontzertuak eta bestelako ikuskizunak antolatzen. Datorren egubakoitzean, bakarrizketak eramango dituzte Jai Zale tabernara. 23:00etan izango da, eta ohikoa den moduan, doan.


Jon Urraza algortarrak *Ez haiekin ezta haiek gabe ere* ikuskizuna eskainiko du. Emanaldi hori hiru bakarrizketa barregarri osatzen dute, eta guztira 55 minutu iraungo du. Horretarako, hiru pertsonaiak hainbat baka-

rrizketa egingo dituzte, gai hauen gainean: bikotea, bikotekide falta, ligatzea... Pertsonaia bakorritzak bere esperientziak kontatuko ditu.

EGUNEROKOTASUNEN GAIK

Lehenengo bakarrizketak *Andria krisialdian* izena dauka. Betiko neskalagunarekin ezkontuta dagoen baserritar batek krisi garaia bizi izango du. Bigarrenak *Apartamentua* izena dauka. Gazte batek bere lehenengo etxebizitza alokatuko du, ligatzeko aukerak handituko direlakoan. Orain, lagunak etxebizitza uzteko eskatuko diote, neskekin joateko. Hirugarrenak *Neure itu maitia* izena du. Mutil batek mutil-laguna du, baina hark gizonak kritikatuko ditu.

Gai horiek gizona zuzeneko eta emakumezkoen ikuspuntuetatik jasoko ditu.



MAITE OÑEDERRA

Jon Urrazak umorezko bakarrizketak egingo ditu.

KULTURAPILULAK

Arrasateko Musika Eskolak kontzertuak egingo ditu Bergaran eta Aramaion

Bihar, zapatua, Arrasateko Musika Eskolako Big Band taldeak kontzertua egingo du Zabalotegi aretoan, 20:00etan. Zigor Martinezek zuzenduko du taldea, eta honako kantuek joko dituzte: *When the saints go marching in*, *I got you (I feel good)*, *Copacabana*, *Take a train*, Otis Redding-en *I can't turn you loose* eta beste batzuk.

Horrez gain, etzi, domeka, eskolako txistulariek Aramaion Gantzaga auzoan emanaldia egingo dute. Elizan izango da, 11:45ean. Sei txistularik eta perkusio jotzaile batek esku hartuko dute.

Datorren egubakoitzetik hilaren 28ra, Margo Taldeak erakusketa egingo du Harresi aretoan

Arrasateko Margo Taldea herriko hainbat margolarik osatzen dute. Margotzeko zaletasuna dute, eta urtean behin edo birritan talde-erakusketa egiten dute Harresi aretoan. Datorren egubakoitzetik, hilaren 19a, azaroaren 28ra arte erakusketa ipiniko dute. Asteleheneetik egubakoitzera, 18:00etatik 20:00etara; eta zapatuetatik, 12:00etatik 14:00etara, eta 18:00etatik 20:00etara.

BOTEPRONTUEN

Eneritz Urbieta Atxa

PREVISORA BILBAINA ASEGURUAK

XABIER URZELAI

ETEOn ikasi euen Eneritzek, eta bi urte egingo dau Previsora Bilbainan lanien. Egun, aseguratza horretako Debagoieneko komertzial arduraduna da. Jardun euskera elkarterako be egitten dau lan, Bergaran. Bistan dau Eneritzek ez daukola asperketako denporarik.

Bi urte egingo dozu zeuk, eta bi urte egindo dau enpresiek Zerrarako etxietan.

Bai. Oin dala 34 urtetik dau Previsora Bilbaina Mondraguen. 1970ien, galiziar batek hartu euen hamengo delegaziñue, baiñe 1982xen Rafa Herrera eta Pilar Moreno senar-emaztiek hartu euen negoziue. Jubilau artien ibilli die lanien, eta oin, euren seme-alabek hartu daue relebue.

Azkeneko urtietan dezente haunditu da aseguradorie.

Bai. Hasieran, funerarixa zerbitzuek bakarrik emuten geuen, baiñe poliki-poliki beste zerbitzu batzuk be sartu dogu.

Zelako zerbitzuek?

Oin, seguro bakar baten barruen aseguretan dogu osasun kontuek, hiltzen gareneko kontuek, akzidentiek, defentsa juridikue eta biaje asistentzia be. Horrek esan gure dau, bixerko egunerako zerbitzu funerarixo danak aseguraute eukittiez gain, geurien aseguraute dauzenek bizitzan ziher bentaja haundixek eukiko dauela.

Zeuk ze lan egitten dozu?

Aseguradorako zentrala Bilbon daukogu, eta neuk Debagoieneko komertzialen ardurie dauket. Seguruek saltzeko komertzialak kontratatuko entrebistak eta holakuek egitten dot, eta gero, komertzial horreik formau egin biher die: ikastaruek emun, saltzeko teknikak erakutsi... Gaiñera, salmentak ez bajetako komertzialen lana be jarraiketana dot.

Zerbitzu funerarixuek aseguretie ez da ba dauen lan alegriena...

Nundik ikusten dan... Geuk badakigu jentiek asko eskerketan



“Lehen, funerarixa zerbitzue bakarrik emuten geuen, baiñe oin beste zerbitzu asko daukogu”

dauela momentu gogor horreittan zerbitzu danak lotute eta aseguraute eukittie; holan ikusitte ez da lan bape tristie.

Zeun klientiek nagusixek izengo die, ala?

Ez pentsau. Egixe esateko, gazte asko etorten da. Bikotiek batera bizi izeten hasten dienien etorten die, seguro bille. Normalien, gaztiek kotxien seguruen gaiñien egitten daue berba, baiñe asko die honezkero geurekin aseguraute dauzenak.

Lana alde batera itxitte: ze falta jako Mondragueri?

Ba ez dakit ze esan. Bergara, Elorrixo eta Durango aldien asko ibiltten naz, baiñe Mondraguen...

“Gaztiek ez daue holako seguruen gaiñien berba egitten, baiñe asko etorten die hona”

Eta ze falta jatzu zeuri?

Lasaixau ibiltteko denporie, esango neuke.

Pelikula bat. Liburu bat. Musika talde bat.

El Bosque da ikusi doten azkena / *¿Quién se ha llevado mi queso? Como adaptarnos a un mundo en constante cambio* / Mikel Urdangarin gustetan jat.

Egitten dozun etxeko lan gorrotagarrixena.

Amak leiduten badau hau... (Barre) Hautse kentzie esango dot.

Kapritxo bat.

Ez naz kapritxo-zalie...

Laguntzatxo bat: Mercedes bat, txokolatie...

Bixek be!!!

NIRE BIDAIA HURA / Nerea Makazaga

Indiara eta Nepalera / 2003ko abuztuan eta irailean

Nereak eta Ikerrek hilabete inguru egin zuten joan den urtean Indian eta Nepal: “Urtebete lehenago European zehar ibili ginen *Interail*-arekin, eta oso ondo ibili baginen ere, oraingoan zerbitu berezia egin gura genuen. Horregatik aukeratu genituen India eta Nepal; argi esan behar da, baina, bi lurralde horien artean alde handia dagoela”. Indiako egonaldia atsegina izan zen, baina Nereak dio ez zela hara berriro bueltatuko: “Gurago izango nuke beste non-baitera joan, leku asko daude eta ezagutzeko. Esan behar dut, gainera, azkenerako Indian gogaitu egin nintzela. Hango bizilagunen artean mailaketa handia dago; daukaten sinismenaren arabera, maila baxuenan dagoena lehenagoko bizitzan okerra izan delako da, eta zigor moduan dago egoera horretan. Gainera, emakumeekiko duten jarrera ere ez da batere ona. Sekulako beroa egiten bazuen ere, ezin nituen praka oso motzak jantzi, sorbaldak estalita izan behar nituen... Ez dakit Indiara beste neska batekin joango ote nintzatekeen”.

Kontraste handiko lurraldea da India. Argi dago badi-tuela gauza txarrak, baina hango bizipenak kontatzeko modukoak dira: “Hegazkinetik jaitsi ginenean aurrez hartuta genuen ostatura joan gura genuen. Taxi gidariak esan zigun ostatu hartan ez zutela lekuri izaten, eta Gobernuaren bulegoetara eraman gintuzten. Han esan ziguten ez zegoela lekuri


—gezurra— eta beste leku batean igaro genuen gaua. Kontua da, euren artean tratua egiten zituztela, eta berehala konturatu ginen eurek gura zuten lekuetan bazkaldu, afaldu eta lo egiten genuela”. Bidaiaren nondik norakoa azalduko dizuegu datorren astean, eta Indiara joan gura duenarendako argibideak emango ditu Nereak.



“Egia da Indian azkenerako gogaitu egin nintzela”

“Eurek gura zuten lekuetara eramaten gintuzten”

XABIER URZELAI



Nerea eta Iker indiar gaztetxo batekin, izozkia jaten.

Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaia kontatzeko prest zaude?
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.



ELKARRIZKETA

ESTEBAN ARANA/ABAROA ERRETIRATUEN ATEZAINA ETA TABERNARIA

“Laster erretiratuko naiz, baina ez naiz Benidormera joango; gurago dut mendia”

IKER BARANDIARAN

Esteban Aranak urte mordo darama Abaroa elkartearen atezain eta tabernari lanak egiten. Herriko erretiratuak ia inork baino hobeto ezagutzen ditu, eurekin pasatzen du-eta denbora luzeen.

Abaroan atezain eta tabernari ibili aurretik, non egin zenuen lana?

Gaztetan, Ekonomia ikasketak egin nituen Sarrikon, bi urtez. Horren ostean, zortzi urte kanpoan egin nituen. Handik bueltan, 5-6 urte egin nituen Durangon eta Arrasaten espartinak egiten. Beste lau urte igeltsero ibili nintzen; lehenengo, Oreretan, eta gero, Arrasaten. Egia esanda, denetik egin dut, curriculum bitxia daukat (barreak).

Noiz eta zelan bururatu zitzaizun Abaroan lan egitea?

90eko hamarkada hasieran langabezian nengoen eta krisi ekonomikoa bizi genuen Euskal Herrian. Horrez gain, seme biak ikasten zeuden, eta emazteak ere ez zeukan lanik. Abaroan lan egiteko aukera suertatu zen, eta proba egin nuen. Ordutik nabil erretiratuen elkartearen lanean. Dagoeneko, hamalau bat urte egin behar ditut lan horretan.

Batez ere, tabernari lanean ikusten zaitugu, baina zeintzuk dira zure eginkizun nagusienak?

Elkartea garbitzearen ardura daukat, egunero-egunero -domekak barne- elkartearen 10:00etatik 21:30era zabalik eduki behar dut, eta tabernaren ardura ere neuk daukat. Horrez gain, edozein larrialdi egonez gero, anbulantzia edo dena delakoa neuk eskatu beharra daukat. Zoritxarrez, noiz edo noiz egon da horren premia.

Zelakoa da erretiratuekin lan egitea?

Ez daukat kexa handirik. Erretiratuen artean denetik dago,



IKER BARANDIARAN

“Ia 14 urte daramat. Erretiratuekin gaizki konponduko banintz, ez nuke Abaroan jarraituko”

“Batez ere, astean txirikiteo orduan eta domeketan batzen da lagun gehien Abaroan”

baina gehienak jatorrak dira. Egia esanda, ia 14 urte daramat hemen, eta ez bagina elkar ondo konponduko, ez nuke hemen jarraituko.

Zer da zure lanak daukan onena eta txarrena?

Txarrena da egun eta ordu asko lan egin behar dudala. Onena da lan honetan asko ikasten dela. Barraren barrualdetik gauza asko ikusten dira. Psikologoek beste ikasi dut hemen.

Zelakoa da ohiko egun bat Abaroan?

Astean, goizetan lagun gutxi egoten dira. Eguerdietan, berriz, hainbat lagun berriketaldian egoten dira. Arratsaldeetan, batez ere 18:00etatik 20:30era, jendez lepo egoten da Abaroa. Ia guztiak ordu berdinean etortzen dira. Asko karta jokoan ibiltzen dira. Domeketan ere jende mordo biltzen da bertan. Horrez gain, elkarteak berak antolatzen dituen ekintzetan jende askok esku hartzen du: ikastaroetan, berbaldietan... Gizonetako eta emakumezkoak, biak hala biak, ibiltzen dira, baina emakumezkoak aktiboagoak dira. Lehen astean, goizetan, lagun mordo batzen ziren berriketaldia egitera, baina ohitura hori galdu egin da.

Konforme zaude Abaroak gaur egun dituen instalazioekin?

Bai, ondo daude. Hala ere, instalazioak zaharrak dira, 80ko hamarkadakoak, eta hori igartzen da. Bestela, edozein matxura dagoenean eta Udalarari deitzen diogunean, berehala joaten dira hori konpontzera.

Laster erretiratuko zarela esan duzu. Zer asmo daukazu ordurako? Zer egin gura duzu?

Bai, hemendik urte gutxira erretiratu egingo naiz. Badut gogoaz zulotik irten eta haize freskoa hartzeko. Batez ere, mendira joan gura dut. Egia esanda, ez daukat Benidormera joateko inolako asmorik. Gurago dut Gatzagainera joatea.

LABUR

Abaroa elkartearen mahai-joko txapelketa

Abaroa erretiratuen elkarteak laster abiaraziko du mahai-jokoaren txapelketa. Txapelketa azaroaren 25ean egingo dute, baina interesatuek astelehena, hilaren 15a, aurretik eman beharko dute izena elkartearen bulegoan. Honako jokoak izango dituzte: mus, tute, briska eta billarra, hain zuzen.

Horrez gain, elkartearen arduradunek aditzera eman dute dagoeneko salgai daudela Gabonetako otarretarako txartelak. Interesatuek bulegora jo beharko dute.

Abaroa elkartearen 90 urtetik gorako bazkideei omenaldia

Abaroa elkartearen batzarrak aditzera eman du aurreko urteetako ohiturari jarraituta 90 urtetik gorako bazkideak omendu gura dituela.

Ekitaldi hori azaroaren 23an egingo dute elkartearen 12:00etan egingo dute, eta omenduez, hau da, erretiratuez gain, honako hauek esku hartuko dute: alkateak, parrokoak, Udaleko Gizarte Saileko ordezkariak eta Abaroako arduradunek, besteak beste.

90 urteko adina gainditu dutenek edo senideek bulegora jo beharko dute aurretik.

Erretiratuendako ortuak dagoeneko esleitu dituzte

Udaleko Ingurumen Saileko arduradun Joseba Ugaldek aditzera eman duenez, Garagartza auzoan egin gura dituzten ortuen egitasmoa aurrera doa. Proiektua LKS enpresari esleitu diote, eta abendurako prest egongo dela azaldu du zinegotziak.

Ortu horiek egitearen helburu nagusia da herriko erretiratuei aisialdirako aukerak eskaintzea.

Monte
taberna

Maailako errabala 2
Tel.: 943 79 20 56

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE • Tel.: 943 79 81 82

UGARAN
jatetxea

Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

UGARTE

Industria
hornidurak

San Andres auzoa 2. 5-6
Pab.
Tel.: 943 -71 21 41
Faxa: 943 - 71 21 40

EZETZASMATU



ARRASATE PRESS

Zenbat urte ditu erretratu horrek?
Argazki horretan azaltzen direnetatik, zenbatek jokatzen dute gaur egun?

Super BM

Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEK asmatzaileon artean!

ERANTZUNA

IZEN-DEITURAK.....

TELEFONOA

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**
ARRASATE PRESSERA!

HS xanpua
300 ml

3,75€ 624 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

JON OTXOArendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Jon!
Galderen erantzun zuzena:
Zerrajerako bulegoak.

ARRASATEKO HISTORIA

Arrasateko baserri auzoetako bideak (II)

ARRASATEKO BASERRI... / G. ARZELUS

Aurreko atalaren osagarri, rrasateko baserri auzoen zerrenda bat litzateke ondorengo hau. "Zenbait kasutan hipotesi bezala azaltzen dira, bide haiek aspaldi desagertu zirelako eta ez da inolako testigantzarik gelditu". Aipatu beharra dago, gainera, "gaur egun Zaldibar izenez ezagutzen dugun auzoak garai batean eremu askoz zabalagoa hartzen" zuela, eta horrela, "Arrasateko Toponimia lanetan oinarrituta, Zaldibar barrutian zeuden bideak baserri-auzo hark zuen egituraren barnean" aurkezten direla. Urteei dagokienez, dokumenturen baten aipamena egiten denekoak dira.



U.M.

Udala auzoan baserri-guneak eta herria zein Besaiderekin lotzeko hainbat auzobide daude.

Udala eta Besaide artean dagoen eremu zabal bati deritzo eta haraino iristeko Besaidera doan Goko Bidea hartu beharra dago. Oro har, nahiko egoera onean dago, nahiz eta zenbait lekutan eta euria egiten duenean lokatz ugari egoten den. Txukurrillo baserriaren

Lehen, Zaldibar auzoa gaur egun ezagutzen duguna baino handiagoa zen

azpialdetik doa, eta Gazeagako txabola (jausita dagoen) inguruan dagoen bidegurutzetik gorantz jotzen du. Puntu horretan hiru karoizulo daude. Garai batean Aitaburura heltzeko Nebera edo Axpe baserriaren (1917an sute baten suntsitua) ondotik igarotzen

zen. Baserri horri izena eman zion elur-zuloa oraindik ere mantentzen da.

Alena bide (Zaldibar): Alena, antzina Zaldibar izenez ezagutzen ziren hiru baserrietatik bat zen, baina 1943an Roneoko lantegiak eraikitzeke bota zuten. Auzobide honek hirigunea eta baserria lotzen zituen ez dirudi oso ibilbide luzea zuenik.

Altamira bide (Zaldibar, 1477-1603): Bide honek Altamirako etxea eta herrigunea lotzen zituen, Likaitzeko baserriaren ondotik pasatzen zelarik. Beste bide batek, berriz, Altamiratik jaitsi eta Maalarekin bat egiten zuen.

Alzibar (1779-1793): Arbetik Alzibarrera eta handik Ibaiondorantz jaisten den bidea, garai batean burdibidea eta kurtzebidea izan zena, Bergaratik zetorren erregebidearekin bat egiten zuen. Hala ere, Alzibar baserriak desagertuta dagoen Zabaletako zubiarekin zuzenean lotzen zuen beste burdibide bat ere omen zuen (1793).

Amatio edo San Jurgi Bide (Gesalibar, 1703-1779-1899): Gesalibarretik eta Parraia baserrietik aurrera joanaz heltzen da Amatioko etxera. San Jurgi ermita XVIII mendean desagertu zen.

Aginaingo estrada (Garagartza, 1827): Garagartza auzoko Fagor lantegiaren parean dago, Etxebarrieta eta Emaldi baserrien artean. Gesalibarrerantz goazela, errepedeak Garagartza aldera egiten duen bidekurutzearen ezker aldean dago. Estrada horrek, Etxebarriraino daraman bidearekin bat egiten du. Pinu artetik doa eta pinuak sartzeko pasatu diren kamioiengatik lehenagoko trazatua zerbait zabaldu da.

Aitaburuko birie (Udala):

Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2004ko azaroaren 12a / 129. zenbakia


KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolora Lizenziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

Datorren urtean aplikatuko dituzten zergak erabaki ditu Udalbatzak

JON BEREZIBAR

Astelehenean deitutako ezohiko bileran erabaki zituzten datorren urtean aplikatuko dituzten zergen igoerak. Ur hornidura eta zabor bilketaren gaineoak izango dira igoerarik nabarmenenak. Hobariei dagokienez, aurtengo berak izango dira.

Astelehenean onartu zituen Udalbatzak datorren urterako ordenantza fiskalak, hau da, 2005erako zergek zenbateko igoera izango duten. Aurtengo jardunaldiari dagokionez ez da egon iaiztik igoerarik, Udalak bere momentuan zegokion txosten ekonomikoa ez zuelako aurkeztu. Beraz, iaiz ez zuten zerga igoerarik egin. Aurten, berriz, igoko dituzte. Hala ere, hobari edo bonifikazioek bere horretan jarraituko dute. Aurten aplikatu dira eta datorren urtean ere berdin jarraituko dute. Hone-la, familia ugarietako hobaria %50 izango da hiru seme-alabako familietan, %70 laukoetan eta %90 bostekoetan. Laguntza horretaz baliatzeke urtero aurkeztu beharko da familiaren egoera egiaztatzen duen agiria. Hobariekin jarraituz,



Astelehenean, ezohiko Udalbatzan erabaki zituzten datorren urterako zergen igoerak.

%32tik gorako minusbalioetasuna daukatenean laguntzak izango dituzte ibilgailuen gaineo zergatan. Azken hori %1'5 igoko da. Udalak eskaintzen dituen zerbitzue-

tako hainbat tasatan ere egongo dira igoerak. Estolderia %5'7 igo da eta igoera handiagoa izan du urak: %25, hain zuzen. Zabor bilketa, berriz, %15 igoko da. Oro-

korrean, legeak ezarritakoa aplikatu zaie zerga gehienei eta tasen gaineo kontsumo prezioen indizearen arabera izan da, horien artean hilerri zerbitzuak.

Ur horniduraren gaineo zerga igoko da gehien datorren urtean: %25, hain zuzen ere

Aurten aplikatutako hobariekin bere horretan jarraituko dute datorren jardunaldian

Orokorrean, kontsumo prezioen gaineo indizea aplikatu zaie zerga eta tasa berriei

HERRITARREN HITZA / Manex Agirre · Bertsolaria

Sorkuntza eta ekialdea

The animals taldearen *La casa del sol naciente* kantuaren letra dakienak eta itzulita duenak deitu diezadala. Mesedez. Orain. Beharrezkoa dut. Aspalditik ezagutzen dut kantu hori, eta ia kantua bezain garrantzizkoa dena, kantuaren titulua. Eta onena (txarrena) da nire pelikula propioa montatu dudala kantuaren letrak diotenari buruz, orain kontatuko ez dizuedana, noski. Ez dakit kantuak zer esan nahi duen, ez daukat arrastorik ere, nire ingelesa eta ahuntzaren eguerdiko uzterra maila berean daudelako, baina titulua hain egiten zait sujerentea, bizkarrezur propioa asmatu diodala. Kontua

da horrelako detaileetan erakusten duela gizakiak sortzeko duen ahalmena (oraingorik gelditzen zaiona baina harear-erlojuetan bezala apurnaka gastatzen doakiona), sorkuntzarako jaiotzetik duen kapazitatea.

Nire lagun batek kontatu zidan aurrekoan urtetan izan zuen akats bat: Negu Gorriak-en *Bi doberman beltz, bilatzen ta suntsitzen* errepika famatua *Victor Manuel, atentatuz hil zen* kantatzen zuen



"Ahaztu elizako sinisten det-ak. Sortu"

berak, zapatu gau batean kantuan emozioatuta oihuka ari zela lagun batek esan zion arte "ze kristo kantetan dozu, tio?"

Bada, ni poztu egiten naiz horrelako zerbait entzuten dudana bakoitzean, pentsatzen dudalako oraingorik badaukagula irudimen apur bat, 68ko udaberri hartan ez genituela gastatu geneuzkan kapsula oniriko guztiak, oraingorik bagarela sortzeko kapaz...

Julio Cortazarrek *Rayuela* izeneko nobela bat du. Bertako hitzaurrean adar jotze bat dirudien ohar bat egiten dio irakurleari: aurrean duen liburua modu askotara irakur litekeela abisatzen dio, eta irakurtzeko ordena desberdinak ematen dizkio, edo bestela liburuaren zati bat irakur dezakeela eta bestea utzi esaten dio, edo (jada hitzaurrearen bukaeran) nahi bada, irakur dezakeela liburua beste edozein liburu bezala. Askatasun osoa ematen dio irakurleari, sortzaile bihurtzen du nolabait esanda. Ahaztu itzazue elizako sinisten det-ak. Sortu.

LABUR

Gurasoen arteko topaketak hasi ziren martitzenean

Pasa den martitzenean hasi eta hilabete osoan egingo dira gurasoen arteko topaketak Aramaion. Bertan familia eta bikote arazoak jorratuko dira, nork bere esperientzia ezagutzera eman eta aholkuak elkartrukatzeko.

Erabat doanekoak dira topaketok eta haurtzaindegi zerbitzua ere egongo da nahi duenarentzat. Saioak hilabete honetako martitzen gutzietan izango dira, 18:00etatik 19:30era, San Martin ikastolan.

TELEFONO JAKINGARRIAK

OSASUNA / LARRIALDIAK

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Erzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal kiroldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zuako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

AUTOBUSORDUTEGIA

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

OHARRA: izartxoak duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzotako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan deitu beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

OHARRAK

PARTXIS TXAPELKETA
Txirritola elkarteak antolatuta, Aramaioko bosgarren partxis txapelketa jokatu da zapatuan. Sastinan izango da txapelketa, 16:30ean. Hiru adin multzo egongo dira bertan parte hartzeko. Txikiendakoa lehen talde bat egongo da, 6tik 12 urtera arte; gazteendakoa 13tik 16ra arte; eta 17tik aurrera hirugarren talde bat. Sariei dagokienez, lehen bi taldeetako txapeldunek 60 euroko saria izango dute eta nagusiendakoa 90 eurokoa izango da. Urtero moduan jende asko animatzea nahi dute antolatzaileek, baina aurten, bereziki, nagusiei egiten diete deialdia. Partxis-zaleek, beraz, zapatu arratsaldean daukate hitzordua Sastinan.

ZINE EMANALDIA
Aste honetan, barikuan izango da asteroko zine emanaldia. Kultura etxean izango da, 22:30ean. Oraingo asteko filma 1936. Urtean estreinatu zen. Charles Chaplinen *Tiempos Modernos* film mitikoa emango dute.

Gantzagan dena gertu auzoko San Millan jaiak ospatzeko

JON BEREZIBAR

Dagoeneko dena prest dago asteburu honetan Gantzaga auzoan San Millan jaiak ospatzeko. Barikuan hasi eta domekara arte makina bat ekintza egongo dira, baina aurten ere izango dira garrantzitsuenak erromeriak eta txirrindulari igoera.

Uda aspaldi utzi genuen atzean, baina oraindik ere geratzen zaigu festaren bat edo beste; oraingo asteburuan Gantzagako San Millan jaien txanda izango da. Egitaraua zabala da, barikutik domekara arte.

Jaiekin hasteko, kantu afaria egingo dute Izpizte elkartean barikuan. Gaueko bederatzietan hasiko dira afariarekin, eta antolatzailerik ezarria ondo berotuta joatea gomendatzen dute. Gozatu bai, baina indarrak zapaturako gordetzea komeniko zaie gantzagarrei, zapatua izango baita egun nagusia.

ZAPATUA, EGUN HANDIA
Goizeko bederatzietan ekingo zaie ospaketei, kanpainen errepikarekin eta etxafuego jaurtiketarekin. Eguerdian, ohi bezala, meza nagusia esango da Aretxabaletako abesbatzak kantatuta. Meza




Domekan, urtero moduan, Gantzagako XXIV. txirrindulari igoera egingo da.

ARRASATE PRESS

entzun ostean, Bermut dantzaldia izango da Larrea anaien trikitixarekin. Bazkaltzeko atsedean hartu eta arratsaldean ere makina bat gauza egongo dira. Nagusientzat mus txapelketa Izpizte elkartean

eta txikienentzat jokoak ere egongo dira. Gauean, dantzaldia eta txokolate beroa. Domekan, berriz, kirolarien txanda izango da urteroko txirrindulari igoerarekin. Giro lasaiagoa gustuko dutenen-

dako, bestalde, Arrasateko txistulariek kontzertua egingo dute eguerdi partean. Honen ostean, triki-poteoa egingo dute; Larrea anaiak arduratuko dira giroa berotzeaz.



Kiloko azenarioak Gantzagan

Kiloko azenarioak jaso dituzte oraingo astean Gantzagako Linatzu baserrian, Basilio Ugarte eta familiaren harridurarako. Maiatzean erein zituzten azenarioak Linatzan, eta hasieran, kosta egin zitzaizkien haztea. Hori ikusita, hazia atzera bota zuten. Orain jaso eta hasieran landatutako horiek izan dira ezohiko neurria hartu dutenak, kirtena ere luzea eta sendoa dutenak. Kanpoko itxura gogorra izan arren, barrutik xamur-xamurak direla kontatu zigun Basilio. //B

LABUR

Udalak Gaztelekua itxiko duela ohartarazi die gazteei, ezarritako baldintzak bete ezean

Gazte Lokalekoei, aste honetan Udalarekin izandako bileran, ezarritako baldintzak bete ezean lokala utzi beharko dutela ohartarazi diete. Horren aurrean, Aramaioko Gazte Asanbladako kideek euren desadostasuna agertu dute. Asanbladako ordezkarien hitzetan "desengainatuta" daude Udalak agertu duen jarrerarekin. Bileran Udalekoek azaldu diefenez, baldintzetan ezarritakoaren aurka, 20 urtetik gorako jendea dabil Gaztelekuan eta zikin daukatela leporatu zieten lokaleko ordezkariari. Asanbladakoek zikin egotearen kontua gezurtatu eta argi utzi nahi dute honako hau: 20 urteko gazte batzuek hobeto kudea dezaketela lokala 15ekoek baino eta "hori agerikoa dela, herriko jaiak antolatzeke gai izan ziren-eta". Ixteko abisu berri horrekin, lokaletik botatzen dituzten hirugarren aldia izango litzateke. Egoera salatu eta babesas jasotzeko sinadura bilketa egingo da laster.

Trikitixa Eguna ospatuko da zapatuan, San Martin herriko patriaren omenez

San Martin herriko zaindariaren eguna aste honetan ospatzen bada ere, herriko jaiak uztailan egin ohi dira aspaldidanik. Horrek ez du esan nahi patriaren omenezko festarik egingo ez denik. Izan ere, Trikitixa Eguna izango da zapatuan, urtero moduan Trikitixa Eskolak antolatuta. Zapatua izango da egun nagusia. Ekintzak, berez, barikuan hasiko dira Udal Liburutegian ipuin kontaketa batekin. 17:00etan izango da hori. Bihar, zapatua, berriz, buskantzak eta ardoa eskainiko dituzte herriko plazan. 18:30erako egin dute hitzordua. Motorrak berotzeko izango da, iluntze aldean kalejira hasiko da-eta. Lehenago, arratsaldeko zazpitan San Martinetako errifaren zozketa egingo da herritar guztien artean. Ondoren, 19:30ean kalejira egingo dute Aramaioko Trikitixa Eskolako soinu eta pandero joleekin.

ERRETRATUZAHARRA

Parrokiako korua, 1960. urte inguruan



Erretratu zahar horrek 45 urte izango ditu gutxi gorabehera; horixe esan digu argazkian azaltzen den lagunetako batek, Eusebio Iñarrak, hain justu ere. Badirudi Santa Ageda egunean ateratako erretratu dela, baina ez dugu jakin asmatzen argazki hori non aterata dagoen, Bedoñan, akaso. Eusebioren esanetan, baina, jaieguna zen: "Lagun mordo gaude argazki horretan, eta Santa Ageda eguna astean zehar izango balitz ez ginateke horrenbeste pertsona elkartuko".

Erretratu albo batetik dago aterata, eta gaitza da lagun guztiak identifika-tzea. Eskuinaldean, gaztetxo batekin dagoen alkandora zuriduna Jesus Barrutia da. Hortik hasita: Jesus Palacios, Tomas Altzola eta Patxi Nafarrate (burua bakarrik ikusten zaio). David Artzamendiren atzean dagoena ez dugu lortu nor den jakitea. Esandako moduan, David Artzamendi da korua zuzentzen dagoena, eta aurrealdean ditu Alfonso Gorroñogoi-tia, atzerago Luis Mari Maidagan,

hurrengoa ez dakigu nor den, eta albo batetik aurpegia ikusten zaiona da Eusebio Iñarra. Eta Esteban Pagoaga du Eusebiok ondoan. Geratzen direnen artean, badakigu lerro bat atzerago eta atze-atzean dagoena Felix Arriaran dela

eta ondoan dauka Jose Ramon Bolinaga Txori. Eta, atzerago oraindik, justu-justu agertzen da Ignacio Gallastegi, Nicolas Agirrek tapatzen du-eta. Atzean identifikatu ahal izan dugun bakarra da Joxe Berezibar *Komunista*.

Argazkia: Nire haurtzaroko Arrasate liburua.
Informazioa: Nire haurtzaroko Arrasate, Eusebio Iñarra.
Urte: 1960. urte ingurua. Santa Ageda eguna.

NOLA ALDATUDIRENGAUZAK

Ez zuten gura etxe gehiago Legargainen

Legargainen etxeak egiteko baimena eman zuen Udaltzazak 1994ko otsail hasieran, baina erabaki hark polemika handia ekarri zuen. Osoko bilkura hartan, Legarre auzoko bizilagun talde batek etxeak egingo zituzten lekuan zegoen berdegunea aldarrikatu zuen, eta etxeak egiteko leku aproposa ez zela argudiatu; horrez gain, Udalaren hirigintza-politika ere kritikatu zuen.



≈ 1994 Auzoko bizilagunek adierazi zuten ez zela logikoa gero eta bizilagun gutxiago zituen herrian etxe berriak egitea.




2004 Eta azpimarratu zuten etxe berriak egin aurretik Udalak birgaitu egin beharko zituzkeela hutsik zeuden etxebizitzak.

BITTORI
ERRETEGIA
Eguneko menua - Kartako menua
Especialitateak:
legatz kokotxak eta txuletak
Araba Etorbidea 3 ARRASATE Tel.: 943 79 55 82

Mobiliario
ARENZA
- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA
Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA


Lore
• Lurrindegia
• Kabina
• Fotodepilazioa
Olarte kalea 10
Tel.: 943 79 52 50

**Txitxinpe**
Berezitasunak
Kazuelatxoak
Ogitarteko
hotz eta beroak
Arrasate pasealekua 33
ARRASATE Tel.: 943 79 67 76



QUATTRO

4 MOTION



TRAKZIOA

4

GURPILETAN



SEAT

SKODA
AUTO

4


4X4



UDALAITZ

Gipuzkoa etorbidea 36 ARRASATE
Tel.: 943 71 18 70 Faxa: 943 71 18 71

Edertasun gida



ILE APAINDEGI MISTOA

iaran

Zerrajera 1.
Tel.: 943 79 81 79

Ordutegia: 09:30-12:30 14:30-19:30 / Barikuetan ez dugu etenik egiten eguerdian
zapatuak: 08:00-14:00

JADE
ILE APAINDEGIA

Maalako Errabala 21-B
ARRASATE
Tel.: 943 77 16 31

ILE APAINDEGIA

virginia.L

MISTOA

Lapurdi 3. Zigarrola.
ARRASATE
Tel.: 943 79 65 65

AUSART

Ile apaindegi mistoa
Estetika zentroa
Txaro Carrizo

Iturriotz kalea 24. Tel.: 943 77 30 60
943 77 21 58

ILE APAINDEGIA

ILEA
UNISEX

Ferrerias 14 - 943 79 87 62

Lore

Olarte 10 • ARRASATE • 943 79 52 50
Lurrindegia eta estetika zentroa

KORA O'NEAL Ayer HR CLEARINS BIOTHERM VALMONT